



ehkom

EH KOM, KOOP. S.
ESTATUTU SOZIALAK

I. KAPITULUA

IZENA, XEDE ETA HELBIDEA, IRAUPENA, LURRALDE-EREMUA ETA ESTATUTU SOZIALEN ALDATZEA

1. Artikulua. Izena eta izaera

Bat. EH Kom Koop. S. izena hartuta, Andoainen, kooperatiba integral bat eratu da, izaera publiko-komunitarioa duena, irabazi asmorik gabea eta gizarte-ekimenekoa, eta Euskadiko Kooperatiben abenduaren 20ko 11/2019 legeari lotua, eta estatutu hauei ere.

Bi. Kooperatiba integrala den aldetik, EH Kom Koop. Sozietateak bere baitan betetzen ditu kooperatiba mota desberdinek betetzen dituzten berezko xedeak, Euskadiko Kooperatiben Legearen erregelamenduaren 24.1 artikuluan –maiatzaren 29ko 58/2005 Dekretuaren bitartez onartutakoa– ezartzen den bezala.

a) Alde batetik, elkarlaneko kooperatibaren jarduera; hori dela eta, langileriari elkarlaneko kooperatiben arauak ezarriko zaizkio.

b) Beste aldetik, kontsumo kooperatibaren jarduera; hori horrela, bazkide kontsumitzaileei eta erabiltzaileei kontsumo kooperatiben arauak ezarriko zaizkie.

2. Artikulua. Xedea eta funtzioak

Bat. Xedea. Kooperatibaren xedea da Internet sare ireki, neutro eta librean sustatzea, garatzea eta zabaltzen laguntzea Euskal Herriko udalerrietan, indar berezia jarrita zerbitzu-gabeko landa eremuetan; hala nola, Internet zerbitzuak prezio eskuragarrian eskaintzea, indar berezia jarrita behar ekonomikoekin eta egoera zaurgarri batean aurkitzen diren familien kasuan.

Bi. Funtzioak. Era honetan, Euskal Herria azpiegitura telematikoetan eta telekomunikazio zerbitzuetan herri-burujabetasunerantz bidea egin nahiz arrakala digitala gainditzea eta Internet zerbitzua ahalik eta herritar gehienengana helarazi nahi da. Izan ere, Interneteko konexioa oinarritzeko eskubidea da herritar ororentzat, Nazio Batuen Erakundeak berak ere Interneteko eta Informazio eta Komunikazio Teknologietarako sarbidea giza eskubidetzat aitortua du eta estatu kideei exijitzen die denontzako zerbitzu eskuragarri eta arrazoizko bat berma dezaten. Hain zuzen ere, hezkuntzarako, informaziorako, harremanetarako, herritarren parte hartzerako administrazio publikoarekiko eta harreman pertsonal eta sozioekonomikoetarako ezinbestekoa da egun kalitatezko Internet konexioa.

Beraz, EH Kom, Koop. Sozietatea euskal proiektu kooperatibo eta demokratikoa da, eta telekomunikazio-zerbitzu batzuez hornitzeko, bere burua komunitatetik beretik antolatzen du, estatutu hauetan ezartzen diren arau kooperatiboen arabera.

EH Kom, Koop. S. irabazi asmorik gabe eta gizarte-ekimeneko kooperatiba modura eratzen da. Halaber, bere asmoa da gaur egungo ekonomia-ereduaren aldaketan laguntzea, eta, mozkinen gaineratik, guztien ongia lehenetsiko duen eredu bultzatzea.

Bere helburua lortzeko, EH Kom Koop. Sozietatea, jadanik dauden telekomunikazio-azpiegitura ireki, aske eta neutraletan oinarrituko da, eta komunitate osoari estaldura emateko sare telematiko berriak jarri eta garatuko ditu.

EH Kom, Koop. Sozietateak garatutako sareak lizentzia ireki eta prokomunera lotuak izango dira. Honela, baliabide partekatuen erabilera bultzatuko da, eta, ahal den neurrian, azpiegituren bikoizketa saihestuko da. Ingurumenean eta gizartean eragiten duten inpaktuak gutxituko dira, eta, gainera, zuzenki, guztien ongian lagunduko du.

EH Kom, Koop. Sozietatearen printzipio gidariak Nazioarteko Itun Kooperatiboaren Nortasunaren Aldarrikapenari buruzko printzipio kooperatiboak dira: borondatezko atxikimendua, gestio demokratikoa, parte-hartze ekonomiko eta independentzia, hezkuntza, formazioa eta informazioa, kooperatiben arteko lankidetzeta eta komunitatearekiko interesa.

Hiru. Honako hauek ere, EH Kom, Koop. Sozietatearen printzipio dira:

Telekomunikazio arduratsu eta inklusiboak:

Pertsonen erabateko garapenerako beharrezko diren zerbitzuak eskuragarri eta komunitatearen esku behar dute izan.

Guztien ongia. Kapitalaren gaintik pertsonen nagusitasuna:

Pertsonen nagusitasuna ulertzen dugu ez bakarrik ekonomiari dagokionean, baizik eta garapen pertsonala eta lan-egoera bultzatuz gizakiaren osotasunari dagozkien garapen guztiak ere.

Prokomuna:

Inolako diskriminaziorik edo bazterketarik onartzen ez duen telekomunikazio azpiegitura askeak, Internet sarearen oinarri diren protokolo irekiak, software askea, eduki libre eta datu irekiak hedatzen laguntzea.

Koherentzia:

Gure kontsumo-ereduek ez ditzatela gure oinarri etiko eta sozialekin talka egin dezaketen proiektuak finantzatu.

Parte hartzea:

Telekomunikazio-zerbitzu erabiltzaileen erantzukizuna sustatu, gure kontsumo-beharren kontrola berreskuratuz, batez ere, horrek adierazten duen garrantzia oligopolio handien esku uzten dugunean.

Erakunde birsortzailea:

Lur planetarekin luzaroan iraungo duen harremana errespetatuko duen proiektua izan nahi du EH Kom Koop. Sozietateak, eta erabili edo sortu ditzakeen soberakinen erabilera eta birbanaketa zuzenagoa egin. Askoz ere asmo handiagoa baita ekonomia birsortzailea egitea iraunkorra egitea baino, birsorkuntza pertsonen eta lurraren oreka lortzeko printzipioa baita.

Gardentasuna:

Erakundearen bitarteko guztiak erabilia, proiektuaren lan-esparru guztietan gardentasun politika hertsia ezartzea, informazioa modu ulergarrian eta eskura egon dadin.

Elkartasuna:

Gure kontsumo-ereduak aukerako ekonomia eraikitzen laguntzen du, desberdina eta soziala.

Hausnarketa:

Aurreko printzipioak betetzeko, honako hau erabakigarria da: hausnarketa iraunkorraren bitartez, gure erabakimen prozesuekin eta gure jokabideekin koherentea izan behar du EH Kom Koop. Sozietateak.

3. Artikulua. Elkartearen egoitza

Kooperatibaren egoitza Andoaingo (Gipuzkoa) Gudarien Hiribidea z/g helbidean, Martin Ugalde Kultur Parkean kokatzen da, eta herri bereko beronen aldaketa, Kontseilu Errektoreak erabaki dezake.

Egoitzaren aldaketari buruzko onarpen guztiak 11/2019 Legearen 79. artikuluan arau gisa ezarritakoarekin bat etorriz izapidetuko dira.

4. Artikulua. Iraupena, Desegitea eta Lurralde Esparrua

Bat. Kooperatibak iraupen mugagabea izango du, eta bere eragiketak eratze-eskritura publikoa ematerakoan hasiko dira.

Bi. Indarrean dagoen legedian ezarritakoak izango dira desegitearen zergatiak. Kasu horretan, desegitearen erabakia Elkartearen Estatutu hauetan ezarritako gehiengoarekin hartuko da.

Hiru. Euskal Erkidego Autonomia da Kooperatibaren esparrua, baina beren jarduera Euskal Herri bezala ulertzen dugunera zabaldu dezake (Euskal Erkidego Autonomia, Nafarroa eta Lapurdi, Nafarroa Behera eta Zuberoa). Esparru horrek kooperatibak bere bazkideekiko duen harreman kooperatibizatuei soilik eragiten diela ulertu behar da, eta ez kooperatibak eduki dezakeen beste edozein jarduerari.

5. Artikulua. Irabazi asmorik gabeko erakundea

Irabazi asmorik gabeko erakunde izaera bermatzeko, Kooperatibak bere egiten ditu engaiamendu hauek:

- a) Ekitaldi ekonomiko batean ematen diren mozkinak ezin izango dira bazkideen artean banatu.
- b) Bazkideen ekarpenen interesek ezin izango dute izan diru legezko interesak baino handiagoak, beti ere, balizko eguneratzearen kalterik gabe.
- c) Ez Kontseilu Errektoreko kideek, ez Zaintza-Batzordekoek ere ez dute ordainsaririk jasoko karguan aritzearen truke. Nolanahi ere, zereginek eragin ditzaketen gastuak ordainduko zaizkie.
- d) Ez bazkide-langileek, ez soldatapekoek ere ezin izango dute jaso lansarrietan sektoreko soldatapeko langileen lan-hitzarmen kolektiboan –jarduera eta kategoria profesionalaren arabera– ezarritako lansarien % 150 baino gehiago.

6. Artikulua. Estatutuen aldatzea

Estatutuen aldaketa Batzar Nagusiak onartuko du, baldintza hauek betetz:

- a) Proposamena egiten dutenek idatzizko txosten bat aurkeztu beharko dute, zergatiak zehazki azalduta.
- b) Deialdiak argi eta garbi azalduko du zer den aldatu nahi dena.
- c) Deialdiak iragarri beharko du, proposatutako aldaketan testua eta zergatien txostena kooperatibaren egoitzan bazkide guztiek osorik aztertzekeo duten eskubidea, eta agiri horiek eskuratzeko edo dohainik bidal diezazkieten eskatzeko.
- d) Erabakia Estatutu hauetako 34 Bat. artikuluan xedatuta datorren gehiengoak onartu beharko du.

Aldaketaren akordioa Eskritura Publikoan jasoko da, eta Kooperatiben Erregistroan inskribatuko da.

II. KAPITULUA

BAZKIDEEI BURUZKOA

1. SAILA BAZKIDIAK ONARTZEA.

7. Artikulua. Kooperatibako bazkide izan daitezkeen pertsonak

Bat. Kooperatibako bazkide izan ahalko dute: Estatutu sozialei adostasuna adierazitakoan hartutako eskubide eta eginbideen jakitun diren bazkideak. Bazkide hauek Euskal Erkidego Autonomoan, Nafarroan, Lapurdi, Behe Nafarroa edo Zuberoan erroldatuak dauden pertsonak edo beraien egoitza Soziala lurralde hauetako batean inskribaturik duten enpresa, eragile edo erakundeak izango dira.

Bere baitan hartuko ditu:

- Bazkide-langileak

Kooperatibako bazkide-langile izan ahalko dute: kooperatibako langile izateko gaitasuna eta bere lana bertan garatzen duen orok; lana zintzotasunez eta eraginkortasunez beteko dutela hitz emango dute.

- Bazkide erabiltzaile-kontsumitzaileak

Kooperatibako bazkide-erabiltzaile kontsumitzaile izan ahalko dute: azken-hartzaile izaera duten pertsona fisiko edo juridiko guztiek –pribatua zein publikoa– eta kooperatibak merkaturatzen dituen produktu eta zerbitzuez onura atera nahi dutenek.

- Bazkide kolaboratzaileak

a) Bazkide-kolaboratzaile izan ahalko dute: kooperatibizatutako jarduera nagusiak egin gabe ere, kooperatibaren xedeak lortzeko lagundu dezaketen pertsona fisiko edo juridiko guztiek –pribatuak zein publikoak–, dela esparru sozio-kooperatiboan edo tekniko-enpresarialean.

b) Bazkide-kolaboratzaileen onarpena Kontseilu Errektoreari dagokio, eta onartutakoen berariazko lankidetzaren eta gainerako eskubide eta eginbideak ezarriko ditu onarpen-akordioetan. Hala ere, Estatutu hauetako 17. eta 18. artikuluetan adierazitako eginbide eta eskubideak izango dituzte, baldin eta berariazko eta adostutako lankidetzarekin bat egiten badute.

c) Bozka hauen batuketak, salbu eta elkarte kooperatiboak direnean, ezin izango du bozen herena gainditu, ez Kontseilu Errektorean, ez Batzar Nagusian ere.

Bi. Kooperatibaren osaketaren unean kide bihurtzen diren bazkideak bazkide sustatzaile-sortzaile izango dira.

Hiru. Kooperatiban behin-betiko lan egiten uzten duten bazkide-langileek beren egoera termino eta baldintza hauetan mantendu ahal izango dute.

a) Beren baja hartu ondoren, Kontseilu Errektoreari eskatu beharko diote, zeinak bere iritziaren arabera erabakiko baitu.

8. Artikulua. Iraupen mugatuko bazkide-langileak

Bat. Onarpen hitzarmenean hala ezartzen bada, iraupen mugatuko bazkideetza onartu ahal izango da bazkide-langileentzako, beti ere, urte beteko epearekin.

Bi. Ondoren eta berehalako tarterik gabe behin-betiko kontratua egiten bazaie, iraupen mugatuko bazkide-langileek ez dute proba-epetik jasan beharko, salbu eta kontratua aurreko epealdian betetako funtzio desberdinetarako bada.

Hiru. Gerora mugagabeko bazkide-langile bezala onartuak izango balira, hasieran emandako ekarpen eta kuotak hastapenean egin beharreko ekarpen bezala hartuko dira kontuan. Mugagabeko bazkideetza lortzerakoan, bazkideak osatu beharko du, bai hasierako kapitalerako derrigorrezko ekarpena, bai sarrera-kuotarena ere. Mugagabeko bazkide-sartze datan, kontuan hartuko dira, bi kontzeptuetan –mugagabekoan eta iraupen mugatutakoan– araututako kopuruen arteko aldeak.

Lau. Aldi baterako sozietate-lotura bat amaitzearen ondorioz bazkide-izaera galtzen bada, kapitalerako hasierako nahitaezko ekarpena itzultzeko epea, benetan ordaindutako ekarpenaren mugarekin, ezingo da hilabete baino luzeagoa izan.

Bost. Hasierako kapital ekarpenerako egindakoaz gain, kontzeptu horretarako betebeharreko ekarpen berriak onartuko balira, iraupen mugatuko bazkideek mugagabekoek egindako kopuru bera eta baldintza beretan egin beharko dute. Hala ere, ordainketa ez da galdagarria izango mugagabeko bazkide bezala onartua izan arte.

Sei. Iraupen mugatuko bazkide-langileek ez dute kooperatibak izan ditzakeen galerengatik erantzukizunik izango.

Zazpi. Kooperatibaren organoetan, iraupen mugatuko bazkide-langileen esku hartzea baldintzatua egongo da elkartearekin indarreko lotura izatera, beti ere, legeak ezartzen duen baldintzak betez. Iraupen mugatuko bazkide bat kooperatibaren organo bateko partaide balitz eta kontratu-lotura bukatuko balitzaio, automatikoki bere partaidetza utziko du.

Zortzi. Estatutu hauetan bereziki bereizten ez badira, iraupen mugatuko bazkide-langileek elkartearikiko eta lanarikiko dituzten eskubide eta eginbideak gainerako bazkide-langileentzako ezarritakoarekin araupetuko dira.

Bederatzi. Iraupen mugatuko bazkideak lanbide-sailkapen bereko edo baliokideko iraupen mugagabeko bazkide bati dagokion itzuleraren baliokidea jasoko du.

9. Artikulua. Bazkide izateko baldintzak

a) Bazkide-langileak

Bat. Bazkide-langileen kopurua mugagabea da, eta kooperatibarekin izan dezakeen bazkide-lotura izan daiteke: mugagabea edo iraupen mugatukoa, lanaldi osokoa edo lanaldi laburrekoa. Hala ere, iraupen mugatuko bazkideek ezin izango dute gainditu ekainaren 29ko Euskadiko Kooperatiben 1/2000 Legeak ezartzen duen gehienezko ehuneko ordu/urtea.

Bi. Bazkide-langileek kooperatibaren zerbitzura beteko dute beren funtzioa, finkatzen diren lan-arauak betez, jasotako aginduei men eginez eta kooperatiban eskumena duten batzordeek definitutako antolaketa funtzional zein egitura-antolaketaekin bat etorritik.

Hiru. Estatutu sozialetan eta onartuko diren arauetan jasotzen denaren arabera arautuko dira bazkide-langileek funtzio hauengatik jasoko duten ordainsaria eta kapital sozialaren eta soberakinetan parte hartzea.

Lau. Gizarte Segurantzari dagokionean, norbere konturako lan egiten duten Langile Autonomoen Erregimen Berezia aukeratzeko du kooperatibak bere bazkide-langileentzat. Kooperatibak bere gain hartzen du Gizarte Segurantzaren aurrean betebeharreko posizio juridikoa, eta kuoten ordainketen ardura zuzen eta lehenetsia.

Bost. Legearen 66.2 eta 99.6 artikuluetan bazkide-langileentzako aurreikusitako ordainsari-aurrerapenak bere barnean hartzen dute: bai aldizka, bai noizbehinka ordaindutako diru-kopuruak, edo ekonomia ekitaldiaren itxieran jarduerak izandako bilakaeran sortutakoak.

Sei. Bazkide-langilea onartzeko honako baldintza hauek bete beharko dira:

- a) Lan-zerbitzua kontratatzeko gaitasuna izatea.
- b) Bere egokitasun profesionala zein sozietate-integrazioa egiaztatzeko frogaldi bat gainditzea. Frogaldi hori sei hilabete artekoa izango da, eta, lanpostuak hala galdatuz gero, epe hori hemezortzi hilabeterainokoa izan daiteke. Lanpostu horiek ezin izango dute lanpostu guztien % 20 baino gehiago izan.
- c) Frogaldiaren bitartean, kooperatibak eta izangaiak beren harremana moztu ahal izango dute, aldebakarreko erabakiz.
- d) Estatutu sozial hauetan eta onarpenaren unean indarrean dauden hitzarmenenetan ezarritakoa onartzea.
- e) Elkarrearen printzipio inklusibo eta prokomunari jarraiki, izaera ez-baztertzailea izatea gainontzeko bazkideekiko.

b) Bazkide kontsumitzaile-erabiltzaileak

Bazkide kontsumitzaile-erabiltzaile izateko, baldintza hauek bete beharko dira:

- a) 18 urte baino gehiago edo nortasun juridiko nahikoa izatea.
- b) Bazkide hauentzako ezartzen den Kapital sozialaren hasierako derrigorrezko ekarpena egitea. Estatutu sozialetan ezarritakoa edo Batzar Nagusiak onartu eta indarrean dagoena.
- c) Estatutu sozial hauetan, bazkide mota honi ezartzen zaion parte-hartze konpromisoa onartzea.
- d) Kooperatibaren organoetan egoki erabakitako akordioak onartzea eta betetzea, eta, orobat, onartzea eta betetzea indarrean dagoen kooperatiben legeria, estatutu sozial hauek eta barne-araudia.
- e) Kooperatibak merkaturatutako produktuen edota zerbitzuen erabiltzailea izatea.
- f) Bazkide eskaera idatziz egitea Kontseilu Errektoreari.
- g) Elkarrearen printzipio inklusibo eta prokomunari jarraiki, izaera ez-baztertzailea izatea gainontzeko bazkideekiko.

c) Bazkide-kolaboratzaileak

Bat. Bazkide-kolaboratzaileen onarpena Kontseilu Errektoreari dagokio. Onarpenean ezarriko ditu onartutakoen berariazko lankidetzaren eta gainerako eskubide eta eginbideak. Hala ere, Estatutu hauetako 17. eta 18. artikuluetan adierazitako eginbide eta eskubideak izango dituzte, baldin eta berariazko eta adostutako lankidetzarekin bat egiten badute.

Bi. Bozka hauen batuketak, salbu eta elkarte kooperatiboak direnean, ezin izango du bozen herena gainditu, ez Kontseilu Errektorean, ez Batzar Nagusian ere.

Hiru. Bazkide-laguntzaile izateko, baldintza hauek bete behar dira:

- a) 18 urte baino gehiago edo nortasun juridiko nahikoa izatea.
- b) Bazkide hauentzako ezartzen den Kapital sozialaren hasierako derrigorrezko ekarpena egitea. Estatutu sozialetan ezarritakoa edo Batzar Nagusiak onartu eta indarrean dagoena.
- c) Kapital sozialaren ekarpenetarako hartzen diren konpromisoak onartzea, eta Estatutu hauetan aipatzen den hasierako derrigorrezko ekarpena egitea edo Batzar Nagusietan onartua eta indarrean dagoena.
- d) Estatutu sozial hauetan bazkide mota honi ezartzen zaion parte-hartze konpromisoa onartzea.
- e) Kooperatibaren organoetan egoki erabakitako akordioak onartzea eta betetzea, eta, orobat, onartzea eta betetzea indarrean dagoen kooperatiben legeria, estatutu sozial hauek eta barne-araudia.
- f) Bazkide-eskaera idatziz egitea Kontseilu Errektoreari.
- g) Elkartearen printzipio inklusibo eta prokomunari jarraiki, izaera ez-baztertzaila izatea gainontzeko bazkideekiko.

10. Artikulua. Onartzeari buruzko erabakiak

Bat. Kontseilu Errektoreari dagokio bazkideak onartzea. Bakarrrik mugatu ahal izango du ongi oinarrituriko arrazoiengatik:

- a) Onarpenerako ezarritako baldintza objektiboak bete ezean; eta bazkide-langileentzako, gainera:
- b) Bazkide-langile berrien beharretan, eta
- c) Frogaldiari buruzko txostenetan.

Bi. Onarpena edo ezeztapena ezin izango da egin xede-helburuarekiko diskriminazio bidegabea edo arrazoirikgabea eginez.

11. Artikulua. Onartzeko prozedura

Bat. Bazkide izateko eskaera idatziz egingo zaio Kontseilu Errektoreari, eta hark erabakiko du eskaera jaso eta 60 egun igaro baino lehen.

Bi. Interesdunari, idatziz adieraziko zaio ebazpena, eta ezezkoa bada, zergatia emango zaio. Aipatutako epea gainditu eta gero, bazkidea onartutzat emango da ez baldin badago berariazko ebazpenik.

Hala ere, kasu guztietan, Kontseilu Errektoreak kooperatibaren iragarki-taulan iragarriko du bere erabakia, baiezkoa edo ezezkoa dela ere.

Hiru. Iraupen mugatuko bazkide-langileak direnean eta egoera horretan urtebeteko epea metatzen badu, Kontseilu Errektoreak 4/1993 Legearen 26-2 Artikuluaren bigarren paragrafoan aurreikusita dagoen gisan jokatu du.

Kasu horretan, iraupen mugatuko elkarte-kontratuan agertuko da bazkideak mugagabeko egoera eskuratzeko duen eskubidea, beti ere, aipatu eskubidea iraupen mugatuko elkarte-kontratua indarrean eta enpresarekiko lotura bost urtera iritsi baino lehen erabili beharko duela garbi utziz.

12. Artikulua. Onarpenaren gaineko ebazpenei helegitea jartzea

Bat. Ezeztapenaren akordioari, eskatzaileak helegitea jar diezaioke Batzar Nagusiaren aurrean, jakinarazpena jaso eta 20 eguneko epean. Batzar Nagusiak ebatziko du helegitea jaso eta 30 eguneko epean, interesdunari entzunaldia egin ondoren eta ezkutuko bozketaz.

Bi. Onarpenaren akordioari, helegitea jar daiteke Batzar Nagusiaren aurrean bazkideen gutxieneko % 10en eskariz, erabakia Elkartearen egoitzako eta lan-lekuetako Iragarpen Tauletan azaldu eta 20 eguneko epean. Batzar Nagusiak helegitea jaso eta 30 eguneko epean erabaki beharko du.

2. SAILA. BAZKIDETZAREN UZTEA.

13. Artikulua. Borondatezko uztea

Bat. Edozein bazkidek, bere borondatez, utz dezake kooperatiba, nahi duenean; arrazoi justifikatu ezean hilabete lehenagotik adierazi beharko dio Kontseilu Errektoreari, eskaera idatziz aurkeztuta.

Bi. Borondateko uztea justifikatua edo ez-justifikatua izan daiteke.

Hiru. Ondoren aipatzen direnak izango dira ez-justifikatutako borondateko uzteak.

a) Bat atalean aurreikusitakoa ez betetzea, eta berariaz itundutako gutxieneko egonaldia ez errespetatzea, salbu eta gertaeraren inguruabarra kontuan hartuz, Kontseilu Errektoreak kontrakoa erabakitzen ez badu. Hala ere, bazkideek hartutako konpromisoak betearaz dakizkiokete, eta baita kalteen eta galeren ordainak eskatu ere.

b) Bazkideak kooperatibarekin lehian egon daitezkeen jarduerak egiteko asmoa badu.

Lau. Ondoren aipatzen direnak izango dira justifikatutako borondateko uzteak.

a) Kooperatiba bateratu edo zatitu, klasez aldatu, xedearen oinarria aldatu, nahitaezko diru-ekarpen gehiago egin beharreko ezezko bozka eman badio, edo Batzar Nagusira agertu ez eta erabakiarekin ados ez balego.

b) Euskal Autonomia Erkidegoko Kooperatiben 11/2019 Legearen 85.3. artikuluan ezarritakoarengatik Kooperatiba beste sozietate-mota bat bihurtzen denean.

c) Arestiko 3. atalean agertzen ez den beste arrazoiren bat badago.

14. Artikulua. Nahitaezko uztea

Bat. Bazkide izateari utzi behar izateko baldintzak dira:

- Bazkide izateko eskatutako baldintza legalak galtzea.
- Kooperatibak bere xedea lortzeko egindako jardueretan, behin eta berriro eta justifikatu gabeko laguntzaren ukapena.
- Loturarako itundutako iraupen mugatuaren denboraren amaiera.
- Kapital sozialari nahitaez egin beharreko ekarpenetan huts egitea.
- Ekonomia zergatikoetan, teknikoetan, antolamendukoetan, ekoizpenekotan edo ezinbesteko kasuetan oinarrituta Batzar Nagusiak hartutako erabakia.
- Kanporatua izatea.
- Heriotza.

Eta bazkide-langileen kasuan, baita ere:

- Erretirorako legalki ezarritako adina
- Lanerako ezintasun iraunkor osoa
- Lanerako ezintasun iraunkor absolutua
- Baliaezintasun handia

Bi. Aurretik interesdunarekin entzunaldia eginda, Kontseilu Errektoreak erabakiko du nahitaezko lan-galtzea, ofizioz, beste bazkideren batek edo bazkideak berak eskatuta.

Kaltetuak onarpenaren akordioari helegitea jar diezairoke Batzar Nagusiaren aurrean, jakinarazpena jaso eta 30 eguneko epearen barruan. Batzar Nagusiak helegitea jaso eta 30 eguneko epean, eta interesduna entzun ondoren, erabakiko du.

Hiru. Kontseilu Errektorearen erabakia Batzar Nagusiak berretsi eta jakinarazi ondoren beteko da, edo helegiteak aurkezteko epea bukatu ondoren.

Erabakia betearazlea ez den bitartean, Batzar Nagusian botoa emateko eskubidea izango du bazkideak.

Lau. Bazkide-langileen nahitaezko uztea justifikatuzat joko da honako kasu hauetan: bazkideak kooperatibarekiko betebeharrak ez baldin baditu bere borondatez hautsi edo nahitaezko uztearekin ez baldin badu etekina bidegabeki atera, eta hurrengo atalean jasotakoan.

Bost. Batzar Nagusiaren, edo Kontseilu Errektorearen esku legoke hala dagokionean erabakitzea zenbat eta nortzuk izango ziren kooperatiba utzi beharko luketenak ekonomia zergatikoengatik, teknikoengatik, antolamendukoengatik, ekoizpenekoengatik edo ezinbesteko kasuetan oinarrituta, kooperatibaren bideragarritasuna ziurtatzeko, langile, talde edo lanbide-talderen baten kopurua behin-betiko gutxitu beharko balitz.

Neurri horren menpe gelditzen diren bazkideak egindako hasierako derrigorrezko ekarpenaren itzulketaren eskumena izango dute, Estatutu hauetako 53. artikuluan ezarritako baldintzetan, eta lehentasunezko birsartze-eskumena gordeko dute bi urtetarako, baldin eta lehen lan egiten zuten eduki bereko edo antzeko lanpostu berriak sortzen badira.

15. Artikulua. Bazkide-tza galtzearen ondorio eta helegiteak

Bat. Bazkide-langile izaera galtzeak, izan borondatezkoa edo behartutakoa, kooperatiban behin-betiko lan-uztearen ondorioa dauka.

Bi. Kontseilu Errektorearen eskumena da bazkide-tza-uztearen kalifikazioa. Bazkide-tza-uzteari buruzko kalifikazioaren gaineko ebazpenarekin edo bazkide-tza-uztearen –izan borondatezkoa edo beharrezkoa – ondorioekin ados ez badago, bazkideak 25. artikuluan ezarritako helegiteak erabili ahal izango ditu.

3. SAILA. BAZKIDEEN BETEBEHARRAK ETA ESKUBIDEAK

16. Artikulua. Eskubide eta betebeharrak sozialak hasiera unera

Bat. Eskubideak eta betebeharrak sozialak eragina izango dute onarpen-akordioa erabakitzen den egunetik, salbu eta erabaki horren kontra helegitea jarriko balitz. Hori gertatuz gero, etenda geldituko da Batzar Nagusiak ebatzi bitartean.

Bi. Frogaldian, bazkide-langilegaiek bazkide-langileek duten eskubide eta eginbide berberak dituzte, honako berezitasunekin:

- Ezin izango dira aukeratuak izan kooperatibaren organoetako karguetarako.
- Ez dira izango behartuak kapital sozialarentzat hasierako derrigorrezko ekarpenak egitera, ezta sarrera-kuota ordaintzera ere.
- Ez dute izango ardurarik Kooperatibaren emaitzetan, ez positiboetan, ezta negatiboetan ere, soldatapekoiei onartzen zaien eskubide beraren kalterik gabe.

17. Artikulua. Bazkideen betebeharrak

Bat. Bazkideak behartuta daude:

- a) Batzar Nagusiko bileretara eta deitzen zaien gainerako organoetara joatera.
- b) Kooperatibaren xedea lortzeko egindako jardueretan, ahal den neurrian, laguntzera.
- c) Eman zaizkien karguak onartu eta betetzera, baldin eta ez badago ezezkoa emateko arrazoi zuzenik.
- d) Kooperatibako organoek behar bezala onartutako erabakiak betetzera.
- e) Bazkide izateak dakartzan betebeharrak ekonomikoak onartzera.
- f) Kooperatibaren xedean ezarritako jardueretan parte hartzera. Izan ere, gutxieneko arau bezala ezartzen da kooperatiban edo kooperatibaren xedearekin zerikusirik berezia eta elkarlanean jarduten duen enpresetan dagoen edo egon daitekeen lana egitera, lan-lekua edozein dela, salbu eta, eragozpenak izanik, Kontseilu Errektoreak salbuesten ez badu. Dena dela, beste erakunde batean parte hartzen duten bazkideak gutxiengoan egongo dira kooperatiban, ez bada ekonomia zergatiengatik, teknikoengatik, antolamenduzkoengatik, ekoizpenekoengatik edo ezinbesteko kasuetako baldintzengatik kooperatiba enpresa-krisian sartzen delako.
- g) Kooperatiban giro sozial eta bizikidetzan on baten alde egitera.
- h) Kooperatibaren xedearekin lehian dagokeen jardueretan parte ez hartzera, eta horretan diharduenari ez laguntzera, baldin eta Kontseilu Errektoreak horretarako baimena ematen ez badu.
- i) Batzar Nagusiak onartutako galeren egozpenetako kopuruak bere gain hartzera.
- j) Kapital sozialaren hasierako derrigorrezko ekarpenak ezarritako baldintzetan ordaintzera.
- k) Kooperatibaren jarduerak eta datuak isilpean edukitzera, horiek jakinaraztea berorren interesen kalterako bada.
- l) Legeetatik eta estatutu hauetatik erator daitezkeen gainerako arauak betetzera.
- m) Bazkide kontsumitzaile-erabiltzaileek, gainera, kooperatibak merkaturatutako gaiak eta zerbitzuak kooperatibak ezarritako prezioetan erostera; halaber, hasierako derrigorrezko ekarpenak eta unean ezartzen diren aldizkako kuotak kitatzera.
- n) Bazkide-langileek legalki ezarritako adinean erretiroa hartzera.

Bi. Bazkide guztientzat berdinak izanik, betebeharrak horiek beteko dira lege-arauen, estatutu-arauen eta kooperatibako organoek –behar bezala onartuta– erabakitakoaren arabera.

18. Artikulua. Bazkideen eskubideak

Bat. Bazkideak honetarako eskubidea dute:

- a) Batzar Nagusian eta kooperatibaren gainerako organoen erabaki guztietan proposamenak egiteko eta iritzia eta bozka emateko.
- b) Kooperatibaren organo-karguetarako kideak aukeratzeko eta aukeratuak izateko.

- c) Kooperatibaren jarduera guztietan parte hartzeko, inolako bereizkeriarik gabe.
- d) Estatutu sozialen barruan barne-arauetan aldaketak eragiteko.
- e) Informatua izateko, hurrengo artikuluan ezarritakoarekin adostasunean.
- f) Kapital sozialari egindako hasierako derrigorrezko ekarpenak itzuliak izateko, hala dagokionean.
- g) Legeetatik eta estatutu hauetatik erator daitezkeen gainerakoak.
- h) Bazkide-langileek eskubidea dute, gainera, beren lana kooperatiban garatzeko iraupen mugatuko lanaldia bete edo jubilatuta arte, eta lan horri dagokion ordainsaria jasotzeko.

Bi. Bazkide guztientzat berdinak izanik, eskubide horiek beteko dira lege-arauden, estatutu-arauden eta kooperatibako organoek –behar bezala onartuta– erabakitakoaren arabera.

19. Artikulua. Informazioaren eskubidea

Bat. Eskubide hauek dituzte bazkideek:

- a) Kooperatibaren estatutuen eta, izanez gero, barne-araudiaren kopia bat eskatzekoa.
- b) Kooperatibako bazkideen erregistro-liburua eta Batzar Nagusiaren akta-liburua aztertzeko, eta akten eta Batzar Nagusian hartutako erabakien kopia ziurtatua eskuratzekoa. Orobat, bazkideen erregistro-liburuan inskribatuta daudenen ziurtagiria edukitzekoa; alde aurretik eskaera egin, eta zergatia azalduta.
- c) Norberari eragiten dioten Kontseilu Errektorearen erabakien kopia ziurtatua eskatzekoa.
- d) Kontseilu Errektorearengandik, kooperatibarekiko duen egoera ekonomikoari buruzko informazioa jasotzekoa, eskatu eta hilabete igaro baino lehen.
- e) Kooperatibaren funtzionamenduaren edo urteko emaitzei buruz behar diren argibideak edo txostenak eskatzekoa Kontseilu Errektoreari, idatziz; eskaera egin eta 15 egun igaro eta ondorengo lehen Batzar Nagusian emango zaio erantzuna.
- f) Deialdi-epearen bitartean aztertzeko, urteko kontuak eta emaitzen erabileraren proposamena sozietatearen egoitzan eskura izatekoa.
- g) Batzarrean erantzuna izan dadin, arestian aipatutako dokumentazioari buruzko azalpenak eskatzekoa, idatziz, gutxienez, batzarra egin baino 5 egun lehenago.
- h) Sozietatearen egoitzan, deialdi-epearen bitartean, Kontseilu Errektorearen kudeaketa-txostena edo, hala badagokio, kontu-ikuskatzaileena aztertzekoa.

Bi. Aurreko Bat zenbakian ezarritakoaz gain, gutxienez, sozietatearen bozen % 10 ordezkatzan duten bazkideek idatziz eskatu ahalko dute beharrezkoa zaien informazio guztia, noiznahi. Kontseilu Errektoreak idatziz eman beharko die eskatu duten informazioa, 30 egun igaro baino lehen.

Hiru. Edonola ere, behintzat hiru hiletik behin eta egokiena iruditzen zaien bidetik, Kontseilu Errektoreak kooperatibaren aldagai sozioekonomikoen berri eman beharko die bazkideei.

20. Artikulua. Informazio eskubidearen mugak

Bat. Kontseilu Errektoreak soilik ukatu ahalko du informazioa eskaera arduragabekeria edo traba bada kooperatibaren legezko interesentzat edo, informazioa emanda, interes horiek arriskuan jartzen badira, beti ere arrazoituz. Hala ere, salbuespen horrek ez du baliorik izango Batzar Nagusiak kontrakoa ebazten badu.

Bi. Nolanahi ere, 11/2019 legearen 25. artikuluan ezarritako prozedura erabiliz, Kontseilu Errektorearen ezezkoaren aurka egin dezakete eskatzaileak.

4. SAILA. DIZIPLINA ARAUAK

21. Artikulua. Hutsegite-motak

Bazkideek egin ditzaketen diziplina urratzeak bi mota hauetako hutsegiteak izan daitezke:

- a) Elkartearikiko hutsegiteak kooperatibaren erakunde-ordenari dagozkion ekimen edo egin-ez guztiak dira. Elkartearen estatutu hauetan arautzen dira.
- b) Lan-hutsegiteak lanarekin zer ikusia duten ekimen edo egin-ez guztiak dira. Arauak barne erregimeneko araudian zehaztuko dira edo hau egon ezean, Batzar Nagusiak ezarriko ditu.

22. Artikulua. Elkartearikiko hutsegiteak

Bat. Bazkideen hutsegiteak, duten garrantzi, gorabehera eta ondorio ekonomiko eta sozialen arabera honela sailkatuko dira: arinak, larriak eta oso larriak.

Bi. Bazkideen hutsegite arinak dira:

- Kooperatibaren ordena eta garapen egokirako ezarrita dauden araei ez erreparatzea.
- Ezjakite barkaezinagatik, ezarrita dauden estatutu-agindu, arautegi edo funtzionamendu-arauei, gutxienez behin, huts egitea.
- Zergatia eman gabe, deitutako bazkide-ekitaldietara ez agertzea, bereziki, Batzar Nagusietara.

Hiru. Bazkideen hutsegite larriak dira:

- Urtebeteko baino epe laburragoan, huts arinak behin baino gehiagotan egitea.
- Justifikatu gabe –Kontseilu Errektoreko kideen iritziz–, eman zaion kargua ez onartzea edo dimisioa ematea. Edo kargua arduraz ez betetzea.
- Estatutu hautan ezarrita dauden betebeharrak ekonomikoetan atzeratzea.

Lau. Bazkideen hutsegite oso larriak dira:

- Urtebeteko baino epe laburragoan huts larriak behin baino gehiagotan egitea.
- Eskumena duten organoek behar bezala hartutako erabakiak ez betetzea, nabarmenki.
- Kooperatibaren interes materialaren edo prestigio sozialaren kalterako jardutea; esaterako, lehia-operazioak eginez, ekarpenetan eta laguntzetan iruzurra eginez, edo erakundeko arduradunei edo ordezkariari nabarmen begirunerik ez erakutsiz, eta abar.
- Kontseilu Errektorearen funtzioak beretzea.
- Kooperatibaren korrespondentziaren edo isilpeko dokumentuen azalaraztea, edota nahitaez isilean gorde beharreko datuak arrotzei ezagutaraztea.
- Kooperatibaren oinarri sozialen aurkako proselitismo eta oposizio sistematikoa.
- Elkartearen estatutuetako 17. artikuluan aurreikusitako eginbideen ez-betetze larri eta errepikatua.

23. Artikulua. Hutsegite sozialengatik zigorrak

Bat. Hutsegite arinengatik:

- Idatzizko ohartarazpena.
- Gehienez ere urtebetez, botoa emateko eskubidea galtzea.
- Unean indarrean dagoen hasierako derrigorrezko ekarpen kopuruaren % 10 arteko isuna.

Bi. Hutsegite larriengatik:

- Bat ataleko guztiak
- Idatzizko ohartarazpena, zeina publiko egin ahalko den Kontseilu Errektoreak hala erabakiz gero.
- Gehienez ere bi urtez, botoa emateko eskubidea galtzea.
- Ondoko bi hauteskundeetan, kargu sozialetan aukeratua izateko gaitasuna galtzea.
- Unean indarrean dagoen hasierako derrigorrezko ekarpen kopuruaren % 25 arteko isuna.

Hiru. Hutsegite oso larriengatik:

- Bat eta bi ataleko guztiak.
- Gehienez ere hiru urtez, botoa emateko eskubidea galtzea.
- Unean indarrean dagoen hasierako derrigorrezko ekarpen kopuruaren % 50 arteko isuna.
- Kanporatua izatea.

24. Artikulua. Zigortzeko prozedurak

Bat. Kontseilu Errektoreak ezarriko ditu hutsegite sozialen zigorrak, aurretik, dagokion espedientea irekita. Hutsegiteen espedientea irekitzeak sorrarazitako dokumentu guztiak bikoiztu egingo dira, eta dokumentuen ale bat kooperatiban geldituko da, artxibatuta.

Bi. Salaketa-plegua instruktore batek edo, asko jota, hiruk gauzatuko dute. Kontseilu Errektoreak bere kideen artetik izendatuko ditu. Hauek bazkide akusatuari jakinaraziko diote hutsegitearen behin-behineko kalifikazioa, dagokion zigor-proposamena eta zuribide-azalpena emateko epea; epe hori ezin izango da izan 10 egun baino laburragoa, jakinarazpenetik zenbatzen hasita.

Hala nahi izanez gero, bazkideak defentsa-txostena Kontseilu Errektoreari igorri diezaioke. Kontseilu Errektoreak hutsegite sozialak egin dituen bazkidea entzun ondoren erabakiko du hutsegitearen behin-betiko kalifikazioa eta zigorra.

Hiru. Larriak eta oso larriak diren hutsegiteengatik, Kontseilu Errektorearen erabakiari helegitea jarri ahalko zaio Batzar Nagusiaren aurrean, jakinarazpena jaso eta 30 eguneko epean. Batzar Nagusiaren erabakien aurka egin ahal izango da 11/2019 Legearen 41. artikuluan aurreikusitako izapidetaren bitartez.

Lau. Hutsegite arinek egin ziren egunetik hilabetera preskribatzen dute, larriek bi hilera eta oso larriek hiru hilera. Arau-hausteen preskripzio-epea arau-haustea egin den egunetik hasiko da zenbatzen. Arau-haustea jarraian edo etengabe egiten badira, epea arau-haustearen jokabidea amaitu zenetik hasiko da.

Preskripzio-epea eten egingo da zigortzeko prozedura abiaraztean, interesduna jakitun dela, eta berriz ekingo zaio, baldin eta zehapen-espedientea geldirik badago ustez erantzulea den pertsonari egotzi ezin zaion arrazoiren batengatik, eta lau hilabetetan ebazpenik eman edo jakinarazten ez bada.

Bost. Zigor guztiak betearazleak izango dira helegitea aurkezteko epea bukatu eta hurrengo egunetik helegiterik aurkeztu ez edo zigortzeko behin betiko erabakia hartuta badago.

25. Artikulua. Kanporatzea

Bat. Bakarrik Kontseilu Errektoreak erabaki dezake norbait kanporatzea estatutu hauetan jasota dagoen hutsegite sozial oso larriren batengatik, betiere, hutsegiteari buruzko espedientearen ondorioz eta aurreko artikuluan ezarritakoarekin bat etorritz.

Bi. Kontseilu Errektoreak idatziz jakinaraziko dio erabakia bazkideari, erabakia hartu eta 15 eguneko epearen barruan. Interesdunak erabakiaren aurka jo dezake Batzar Nagusiaren aurrean, jakinarazpena jaso eta 30 eguneko epearen barruan.

Helegitea lehen Batzar Nagusian ebatziko da isilpeko bozketa bidez, interesduna bertan dela eta esateko dituenak entzunda.

Hiru. Kanporatze erabakia indarrean jarriko da Batzar Nagusiaren berrespena jasotzean, edo helegite-epea amaituta halakorik aurkeztu ez bada.

Lau. Aurreko atalean jasotakoaren kalterik gabe, Kontseilu Errektoreak bazkide-langilea kooperatibako lanpostutik ken dezake kanporatze-onarpena jakinarazten dion unetik. Hala ere, lanean ariko balitz bezala, lansari-aurrerakina jasotzeko behin-behineko eskubidea atxikiko du.

Bost. Batzar Nagusiak kanporatze erabakia berretsi eta gero, bazkide-langileak jakinarazpena jaso eta bi hilabete izango ditu erabakiaren aurka jotzeko, 11/2019 Legearen 41. artikuluan araututakoaren bitartez.

Sei. Lan-hutsegiteengatik, bakarrik Batzar Nagusiak aurreikusita eta onartutako hutsegite oso larriengatik kanporatu ahal izango du langilea. Kanporatutako bazkideak lan-jurisdikziora jo ahal izango du barru-helegiteak agortu ondoren; helburu horretarako, kanporatze-jakinarazpena irazte-gutunaren parekoa da.

5. SAILA. BARRU-JARDUERAREN ARAUBIDEA

26. Artikulua. Oinarrizko osagaiak

Bat. Lana antolatzeari eta ordaintzeari dagozkienak:

- a) Kontseilu Errektoreak emandako ordezkartzaren arabera Zuzendari-gerenteari dagokio lanaren antolaketa eta laneko diziplina ezartzea eta aplikatzea.
- b) Kooperatibak bazkide-langileak kontratatuko ditu, gehienbat, eta kanpoko langilerik hartu beharko balu, hauek ez dituzte legalki ezarritako mugak gaindituko.
- c) Hilerio, bazkide-langileek lan-aurrerakinak jasoko dituzte lanpostuari ezarritako arduraren eta benetan egindako lan-orduen arabera; hala ere, inoiz ezin izango dira izan urteroko lanbide arteko gutxieneko lansaria baino txikiagoak; ezta ere, sektoreko soldatapeko langileen jarduera eta lanbide-mailaren araberako lan-itunean jasota datozen lan-sarien % 150 baino handiagoak.
- d) Lan-aurrerakinak maiztasunez eta kooperatibaren emaitza ekonomikoen gain jasotako sariak dira, eta, beraz, ez dira soldatak. Horren ondorioz, kopuruak, azken batean, emaitza horien araberakoak izango dira.
- e) Lan-aurrerakinak, urteko lan-orduak eta 11/2019 Legearen 105.2 artikuluan aipatutako gainerako alderdiak Kontseilu Errektoreak zehaztuko ditu, batez ere, kooperatibaren egoera ekonomikoaren arabera, edo inguruko eta sektore bereko enpresetan ezarritako irizpide antzekoekin.

Bi. Pertsona fisikoei dagozkien zergak bazkide-langileen gain joango dira, eta kooperatibak ezin izango ditu horiek bere gain hartu.

III KAPITULUA

EGITURA ORGANIKOARI BURUZKOA

27. Artikulua. Elkartearen organoak

Bat. Kooperatibaren organo sozialak dira:

- Batzar Nagusia
- Kontseilu Errektorea
- Zaintza-Batzordea.

Bi. Kooperatibak Zuzendari-gerentea izenda dezake, estatutu hauetako 42. artikuluan ematen zaizkion ahalmenekin; izan ere, Kontseilu Errektoreak utziezinak dituen eskumenen eta ahalmenen kalterik gabe.

Hiru. Kooperatibak, gainera, bere funtzionamendu eta garapenerako behar dituen batzorde edo organoak sortu ahalko ditu, bakoitzari dagozkion ahalmenekin, legearen aginduz beharrezko organoei berariaz esleitutakoak salbuetsiz.

Lau. Kooperatibak eta haren elkarte-egiturek ahaleginak egingo dituzte bazkideek beren organoetan presentzia orekatua izan dezaten, bai eta genero-berdintasunerako neurriak ezar ditzaten ere, bereziki bizitza pertsonala, familiakoa eta lanekoa uztartzera bideratutakoak.

1. SAILA BATZAR NAGUSIARI BURUZ.

28. Artikulua. Kontzeptu eta eskumenak

Bat. Batzar Nagusia da bazkideen nahien adierazpenerako organo gorena. Batzar Nagusia berari dagozkion eskumenen inguruan eztabaidatzeko eta erabakitzeko eratzen da.

Batzar Nagusiko erabakiak hartzen diren egunean jartzen dira indarrean, eta bazkide guztiek, etorri ez direnek eta disidentek barne, bete behar dituzte Batzar Nagusiak hartutako erabakiak.

Bi. Legeak hala agindutako erabakietan beharrezkoa izango da Batzar Nagusiaren onarpena eta, bereziki, honako hauetan:

- a) Isilpeko bozka bidez Kontseilu Errektoreko kideak, Zaintza-Batzordeko kideak eta likidatzaileak izendatzeko edo baliogabetzeko, eta horien guztien aurkako erantzukizun ekintzak gauzatzeko.
- b) Kontu-ikuskatzaileak izendatzeko edo baliogabetzeko, baldin eta zuzentasunezko arrazoirik bada.
- c) Elkartearen kudeaketa aztertzeke. Urteko kontuak onartzeko; soberakinak nola banatu adosteko, edo galeren egozpena egiteko.
- d) Hasierako derrigorrezko ekarpen berriak ezartzeko, bazkide-sartzearen edo aldizkako kuoten eta kapital sozialari egindako ekarpenengatik bazkideek jasoko duten interesen finkapena ezartzeko. Interes horiek ezin izango dira izan diru legezko interesak baino handiagoak.
- e) Mendeko finantzaketa, obligazio, partaidetza-titulu eta partaidetza bereziak jaulkitzeko.
- f) Kooperatiba bateratze, zatitze eta desagitea onartzeko.
- g) Bigarren mailako kooperatibak, korporazio kooperatiboak eta antzeko entitateak eratzeko, eta horietara atxiki edo bereizteko.
- h) Kooperatibaren egitura ekonomikoa, antolamendua eta funtzionamendua sakonetik alda ditzaketen erabakiak hartzeko. Besteak beste:

- Batzar Nagusian bozen ehuneko nabarmenki aldatu edo Kontseilu Errektorean bazkide-langileek eduki dezaketen ordezkaritza alda dezakeen edozein erabaki hartzeko.
 - Kooperatibaren jardueraren funtsezko zatia hirugarrenei utzi edo kooperatibarentzat garrantzi handia izan ditzaketen enpresak edo jarduerak erosteko edozein erabaki hartzeko.
 - Kooperatibaren aktiboen erdiak baino gehiago besterentzeko, eta Elkartearen helburua aldatzeko, baldin eta aldaketa horrek berekin badakar kooperatibaren hasierako helburuen desagertzea.
- i) Elkartearen Estatutuak eta, hala badagokio, barne-araudia onartzeko eta aldatzeko.
- j) Legeak ezarritako gainerako erabakiak hartzeko.

Hiru. Eskumen horiek utziezinak dira, salbu eta kooperatiba-bateratzetan, Euskal Autonomia Erkidegoko 11/2019 Kooperatiben Legearen 146. eta 154. artikuluetan ezarritakoaren arabera.

Lau. Batzar Nagusiak kooperatibari buruzko edozein kontuz eztabaida dezake, baina bakarrik betebeharreko akordioak hartu ahal izango ditu horiek beste elkarte-organoren baten eskumenekoak ez badira.

29. Artikulua. Batzar Nagusi motak

Bat. Batzar Nagusia ohikoa edo ez-ohikoa izan daiteke.

Bi. Ohiko Batzar Nagusiaren zeregin nagusia da: elkartearen kudeaketaren azterketa, urteko kontuen onarpena, soberakinen banaketa edo galeren egozpena nola egin adostea. Nolanahi den, batzarrari dagokion beste edozein gai ere sar daiteke eguneko gai-zerrendan.

Hiru. Gainerako Batzar Nagusiak ez-ohikoak dira.

30. Artikulua. Deialdiak

Bat. Kontseilu Errektoreak deituko du Batzar Nagusira.

Bi. Kontseilu Errektoreak Elkartearen ekonomia-ekitaldia itxi eta ondoko sei hilabeteen barruan deituko du Ohiko Batzar Nagusira. Ez balu epe horren barruan deituko, edozein bazkidek eska diezaioke Kontseilu Errektoreari betebehari hori betetzeko, idatziz. Kontseilu Errektoreak idatzia jaso eta 15 egunera ez balu erantzunik emango, bazkideak deialdi judiziala eskatu ahalko dio elkartearen egoitzari dagokion Merkataritza-arloko epaileari.

Hiru. Ezohiko Batzar Nagusia egingo da, inongo bereizmenik gabe:

- a) Kontseilu Errektorearen ekimenez.
- b) Zaintza-Batzordearen eskariz.
- c) Bazkideen eskariz, bozen % 20 ordezkatzeko baldin badute gutxienez.

b) eta c) kasuetan, eskaera Kontseilu Errektoreari zuzenduko zaio, idatziz, eskakizun moduan eta eguneko gai-zerrenda sartuz. Eskaera jaso eta 30 egun bete baino lehen deitu beharko da batzarrerara. Epe horretan deituko ez balitz, epai bidezko deialdia egin ahalko da, aurreko zenbakian ezarritako modu berean.

Lau. Batzar Nagusia iragarriko da: elkartearen egoitzan eta beronen lan-leku guztietako iragarki tauletan, ageriki, bai eta bazkide bakoitzari mezu elektronikoa bat bidaliz ere, komunikazio elektronikorako bazkidearentzat emandako helbide elektronikora.

Egoitza sozialaren lurralde historikoan zirkulazio handia duen egunkari idatzi edo digitaletako batean ere iragarriko da deialdia.

Era berean, Batzar Orokorrerako deialdia sozietatearen webgunean argitaratutako iragarki baten bidez egin ahal izango da, baldin eta orri hori sortzea Batzar Orokorrak erabaki badu eta sorrera hori Euskadiko Kooperatiben Erregistroan kooperatibarentzat irekitako orrian jasota geratu bada. Kasu horretan, ez da aplikatuko aurreko lerrokadan ezarritako betebeharra.

Deialdiak iragarriko du: lehen, bigarren eta hirugarren deialdirako data, ordua eta biltokia. Deialdien artean, gutxienez, ordu erdiko aldia izango da. Gai-zerrenda, berriz, argia eta zehatza izango da, eta behar beste azalpen ekarriko ditu.

Batzar Nagusiaren deialdiaren iragarpena batzar-eguna baino gutxienez 10 eta gehienez 60 egun lehenago egingo da.

Bost. Gutxienez bozen % 10 ordezkatzeko duten bazkideek gai-zerrendan nahi beste gai sartzea eska dezakete Kontseilu Errektoreari eskaera eginez, idatziz, deialdiaren iragarkia egin eta hurrengo bost egunetan. Kontseilu Errektoreak gai-zerrendan sartu eta hura berritu beharko du. Iragarpenerako aurreko atalean erabilitako bide berberak erabiliko ditu, eta Batzar Nagusia egin baino gutxienez 4 egun lehenagotik behintzat; edonola ere, deialdia ezin izango da atzeratu.

31. Artikulua. Funtzionamendua

Bat. Batzar Nagusia kooperatibak egoitza soziala duen herrian egingo da, salbu eta areto egoki eta erabilgarri ez izanik Kontseilu Errektoreak hurbileko beste herri bat aukeratzeko badu.

Bi. Geografikoki urrun dauden bazkideei Batzar Orokorrean parte hartzeko eta beraien borondatea adierazteko eta erabakiak bideokonferentzia-sistemen bidez edo antzeko beste sistema batzuen bidez hartzeko aukera eskainiko zaie. Sistema honen bidez irudiaren eta soinuaren bi noranzkoko eta aldi bereko komunikazioa eta ikusizko, entzumenezko eta ahozko elkarrekintza ahalbidetzeko aukera izango dute.

Bazkideren batek Batzar Orokorrean parte hartzen duenean eta aurreko paragrafoan adierazitako moduan bere borondatea adierazten duenean, batzarreko idazkariak biltzarreko aktan berariaz jasoko ditu bazkidearen nortasuna eta horretarako erabilitako bidea, erabakiak balioz hartzeko eskatzen diren gainerako baldintzekin batera.

Hiru. Batzar Nagusia behar bezala osatuta egongo da: lehen deialdian bozen gehiengoa ordezkaturik badago; bigarren deialdian elkartearen bozen % 10 ordezkaturik badago edo 100 bozka badira, eta hirugarrenean edozein bozka eta ordezkari kopururekin.

Lau. Deialdia egiteko orduan bazkide diren guztiak ager daitezke Batzar Nagusira, baldin eta eskubide horretatik gabeturik ez badaude. Batzarrera agertzen ez den bazkideak bere ordezkariak beste bazkide bati laga diezaiotke, idatziz eta berezituia Batzar Nagusi bakoitzerako.

Bazkide batek, bere buruaz gain, ezin izango du bi pertsona baino gehiago ordezkatu.

Batzarreko lehendakariak erabakiko du ordezkaritza-agiriak baliozkoak diren eta nahikotasuna ote duten.

Bost. Batzar Nagusiak Kontseilu Errektoreko lehendakaria izango du buru, haren ezinean lehendakariordea, eta hori ez balego, Batzar Nagusiak izendatuko du funtzio hori beteko duena.

Lehendakariaren ardura da hausnarketak zuzentzea; batzarra ez desbideratzea; gai-zerrendan ez dauden auzien gainean erabakirik ez hartzea –ez badira legeak, bereziki, baimentzen dituenak–; batzarraren gai-ordenari eustea, eta lege-arauak zaintzea.

Idazkari arituko da Kontseilu Errektoreko idazkari dena; haren ezinean, Batzar Nagusiak erabakiko du funtzio hori beteko duena.

Sei. Ez dute izango baliorik eguneko gai-zerrendan ez dauden auzien inguruko akordioek, ez badira legeak, bereziki, baimentzen dituenak.

Edonola ere, Batzar Nagusian, horretarako txanda iristen denean, edozein bazkidek egin ditzake proposamenak eta iradokizunak, hitzez, baina Batzar Nagusiaren akordioa beharko balitz, elkartearen bozen % 20k onartu beharko luke gutxienez, eta gai hori landuko duen beste batzar baterako deialdia egingo da.

Zazpi. Bozketak isilpekoak izango dira legean eta estatutuetan hala badator edo bertaratutako bazkideen eta ordezkaturakoen gutxienez % 10ek hala eskatzen badute. Gainerako kasuetan, lehendakaritzak erabakiko du.

Zortzi. Kontseilu Errektoreko kideek Batzar Nagusietara joan beharko dute. Kontseilu Errektoreak berariaz konbokatuz gero Zuzendari-gerenteak, zuzendariak eta bazkide ez diren teknikariak ere joan beharko dute. Hauek iritzia emateko eskubidea bai, baina bozka emateko ez dute izango eskubiderik.

Batzar Nagusiak bileran parte hartzeko baimena eman diezaioke beste edozeini.

32. Artikulua. Batzar Nagusiaren akta

Bat. Idazkariak bilkuraren akta jaso eta idatziko du, eta akta-liburura transkribatuko du. Gutxien gutxienean, 11/2019 Legearen 39. artikuluan ezarritakoak bilduko ditu.

Bi. Batzar Nagusiak izendatutako bi bazkidek eta lehendakariak onartuko dute bilkura-akta, eta idazkariarekin batera sinatuko dute 15 eguneko epearen barruan.

Hiru. Batzarrera joandako edozeinek du aktaren edo erabakien testu osoaren ziurtagiriak eskatzeko eskubidea. Jaulkitzen den egunean idazkari denak jaulkiko ditu eskatutako ziurtagiriak, lehendakariaren oniritziarekin.

Lau. Inskriba daitezkeen erabakiak Kooperatiben Erregistroan aurkeztu beharko dira, akta onartu eta 30 egunen barruan.

33. Artikulua. Osaketa eta bozka-eskubidea

Bat. Batzar Nagusia osatuko dute:

- a) Bazkide-langileek.
- b) Bazkide kontsumitzaile-erabiltzaileek

c) Bazkide-laguntzaileek.

Bi. Kolektibo bakoitzaren bozka eskubidea honako formulara egokituko da:

- a) Bazkide-langile bakoitzak bozka bat izango du. Bazkide hauen multzoak bazkideen osotasunaren % 45 osatuko du.
- b) Bazkide kontsumitzaile-erabiltzaile multzoaren bozek bozka guztien % 35 osatuko dute.
- c) Bazkide-laguntzaile multzoaren bozak bozka guztien % 20 izango dira. Bazkide-laguntzaile multzoari esleitutako bozka eskubidea haien artean banatuko da sarrera-akordioan onartutakoaren arabera.

Hiru. Batzar Nagusian parte hartzen duten bazkideei, bideokonferentzia-sistemen bidez edo estatutueta 31. artikuluko bigarren paragrafoan aurreikusitako bitarteko edo antzeko sistemen bidez, baliabide elektronikoko egokiak emango zaizkie botoa emateko eskubidea egikaritu ahal izateko, boto-konfidentzialtasuna bermatuz Legean aurreikusitako kasuetan edo Estatutueta, Barne Araubidean eta, betiere, bertan dauden bazkideen eta bazkideen % 10 ordezkatzeko duten bazkideek eskatuta.

Lau. Honako interes-gatazka hauek baldin badaude, bazkideak ez du izango boto-eskubiderik:

- a) Erabakiak berari zuzenki eta soil-soilik eragiten badio.
- b) Kooperatibak eragindako erantzukizun-ekintzaren baten subjektu baldin bada.

Bozka eskubidearen ariketa Barne-araudian garatu ahal izango da.

34. Artikulua. Gehiengoak

Bat. Batzar Nagusiko erabakiak hartuko dira: bertaratutako eta ordezkaturako bazkideen eta behar bezala emandako bozen erdia baino gehiagorekin; ez dira zenbaketan sartuko, ez zuriak, ez eta abstentzioak ere, ez badira 11/2019 legeak edo estatutu hauek gehiengo indartu bat izatera behartzen dituzten kasuak.

Bi. Bertaratutako eta ordezkaturako bazkideen bozen bi herenen gehiengo beharko da kooperatiba eraldatzeko, batzeko, zatitzeko edo desgiteko, beti ere, Batzar Nagusian kooperatibaren bozen % 75 baino gutxiago badira ordezkaturakoak.

Hiru. Gaia Batzar Nagusiaren gai-zerrendan ez balego, bertaratutako eta ordezkaturako bazkideen bi herenen aldeko bozak beharko dira Kontseilu Errektoreko kideak kargutik kentzeko.

35. Artikulua. Erabakien aurka egitea

Bat. Batzar Nagusiaren erabakiak aurkaratu daitezke legearen aurkakoak edo estatutuen aurkakoak direnean edo bazkideren edo hirugarrenen baten onurarako kooperatibaren interesak kaltetuz gero.

Balio duen beste batez ordeztua edo baliorik gabe utzi den akordioa ezin izango da aurkaratu, Kapital Sozietateei buruzko Legearen arabera, eta arau horrek aurreikusten dituen gainerako kasuetan.

Bi. Erabakien aurka jo dezakete:

- a) Bazkide guztiek.

- b) Kontseilu Errektoreko kideek.
- c) Zaintza-Batzordeko kideek eta
- d) Bidezko interesa duen edonork.

Aurkaratzeko aldia urtebetean iraungiko da, baldin eta ordena publikoaren aurkako erabakiak ez badira.

Hiru. Artikulu honetan ageri diren iraungitze-epeak erabakia hartzen den unetik hartuko dira kontuan, edo inskriba daitezkeen erabakiak baldin badira, Kooperatiben Erregistroan inskribatzen diren unetik.

Lau. Oro har, aurkaratze-prozedura bat etorriko da Kapital Sozietateei buruzko Legean ezarritako arauekin, salbuespen batekin: demanda-idazkian aurkaratutako akordioa eteteko eskatzeko. Kasu honetan, demanda ezartzen dutenak Zaintza-Batzordea edo 50 bazkideetik gorako kooperatibetan gutxienez boto-kopuruaren % 10 ordezkatzeko dutenak izan beharko dira. 10 eta 50 bazkide artean dituzten kooperatibetan, %15ak bete beharko du baldintza hori eta 10 bazkide baino gutxiagoko kooperatibetan, %20ak.

Bost. Aurkaratze-akzioa baiesten duen epaiak ondorioak izango ditu bazkide guztien aurrean, baina ez die eragingo inpugnatutako akordioaren ondorioz fede oneko bazkide ez diren hirugarrenek eskuratutako eskubideei. Aurkaratutako erabakia Euskadiko Kooperatiben Erregistroan inskribatuta badago, epaiak deuseztatu egingo du.

2. SAILA. KONTSEILU ERREKTOREARI BURUZKOA.

36. Artikulua. Kontzeptu eta eskumenak

Bat. Kide anitzeko organo bezala Kontseilu Errektorea da kooperatibaren ordezkariak kudeatzeaz arduratzen dena, eskusiboki. Eta, gainera, legez edo estatutu hauen bidez beste sozietate-organoko batzuei erreserbatuak ez dauden ahalmen guztiak kudeatuko ditu.

Dena den, Kontseilu Errektoreak kooperatibaren ildo nagusiak ezartzeko eskumena du, baita indarrean dagoen legediak eta Estatutu Sozialak egotzitako gainerako jarduerak egiteko ere.

Kontseilu Errektoreari emandako ordezkariak lehendakariak burutuko du, lehenik, eta berau kanpoan balego lehendakari ordeak, baldin eta Kontseiluak beste erabakirik hartzen ez badu.

Bi. Hauek dira Kontseilu Errektorearen berariazko ahalmenak:

- a) Bazkideen onarpena eta baja erabakitzea, estatutu sozial hauetan aurreikusitakoa betez.
- b) Edozein ekitalditan eta kontratutan eta erantzukizun osoarekin, kooperatiba ordezkatzekoa, ordezkariak emateko ahalmenarekin. Bereziki, kooperatibak parte hartzen duen entitateen organo sozialetan.
- c) Zuzendari nagusia edo gerentea izendatzekoa, eta, horrek proposatuta, sailtako zuzendariak izendatzekoa eta kentzekoa; baita horien ahalbide, zereginak eta irabaziak zehazteko ere. Horien aurkako erantzukizun-ekintzak, hala badagokio, egikaritzekoa.
- d) Bazkide izan edo ez, langileen baldintza ekonomikoak eta lan-baldintzak zehazteko ahalmena.

- e) Kooperatibaren bilakaera antolatzen, zuzentzen eta kudeatzeko, eta berorren barru-araudia eta horren aldatzeko Batzar Orokorren proposatzeko.
- f) Estatutuaren ezarritako eskubideez eta betebeharez erabakitzea, eta, orobat, lanaren antolamenduari buruzkoak eta langileen lan-erregimenaz eta diziplina-araudiaz erabakitzea.
- g) Estatutuaren arauak eta Batzar Nagusian hartutako erabakietatik eratorritako arauak zuzen aplikatzeko beharrezkoak diren funtzio-arauak onartzeko.
- h) Kooperatibaren helburua betetzeko beharrezkoak diren edo komeni diren ekitaldiak eta kontratuak gauzatzeko ahalmena, ondasun higiezinak erosteari edo besterentzeari dagozkienak barne, orobat, ondasun-eskubideen eraketari, hipotekarenari, eta baita alokatze bereziari dagozkienak ere. Eta kooperatibari baimendutako eragiketa eta mota guztietako negozioei buruz ebazteko ahalmena.
- i) Kooperatibari zor zaion guztia erreklamatzeko eta kobratzeko ahalmena, baita ogasunaren ordezkartzean, ministerioetan, Gordailu Kutxa Orokorrean eta horren bulegoetan. Halaber, gainerako bulego, erakunde, entitate edo antolamendu publiko eta pribatuetan, nazionaletan zein atzerrikoetan edo Europako Batasunean, eta, oro har, betebeharrak bete daitezela eskatzeko ahalmena, horretarako beharrezkoak diren ordainagiriak eginda eta edozein likidazio eta itun mota-onartuta.
- j) Transakzio eta operazio hauek egiteko ahalmena:

- Kooperatibaren dirua eta ondasunak erabiltzeko, eskatzeko, jasotzeko eta kobratzeko, hala partikularrei nola bulego publikoari, Gordailu Kutxa Orokorrean edo kooperatibaren interes sozialei komeni zaizen tokietan gordailuak ireki edo itxiaz.
- Entitate nazionalekin edo atzerrikoekin egin beharreko edozein banku-operazioan kooperatibaren izenean sinatzeko eta jarduteko, baita Espainiako Bankuarekin egin beharrekoetan ere, eta aurrezki-libretak, epeko diru-erakundeak, banku-gordailuak –bai esku-dirutan, bai kreditutan eta bai baliotan irekitzeko, ixteko eta erabiltzeko.
- Truke-letrak, ordaintze-agiriak eta bestelako merkataritza kontuak eta igorpenak negoziatzeko, deskontatzeko, ikuskatzeko, konpentsatzeko, adierazteko, kobratzeko, ordaintzeko, salbuesteko, onartzeko, bermatzeko eta, onarpen ezagatik edo ordain ezagatik –ziurtasun handiagorako–, protestatzeko.
- Edozein salgai motarekin merkataritza eragiketak pignoratzeko.
- Korrespondentsalen esku dauden kooperatibaren diruak eta ondasunak erabiltzeko.
- Segurtasun-kutxak alokatu eta irekitzeko.
- Kooperatibaren eta haren balioen gaineko berme pertsonalarekin dirua mailegutan hartzeko.
- Kreditu ez endosagarriak transferitzeko.
- Merkataritza-operazioak finantzatzeko.
- Kreditu-polizak bermatzeko.
- Edozein igorpen-prozedura edo diru-mugimendu erabilita, diru, errenta, kreditu edo balio-transferentziak egiteko; kontuen balantzak eta kitapenak onartzeko; gordailuak edo fidantzak egin eta kentzeko; kontuak osatzeko; trukeak egiteko; eta abar. Horiek guztiak Espainiako Bankuan eta Banku Ofizialean edo bankuetan eta aurrezki pribatuetan, nazionaletan zein atzerrikoetan.
- Kooperatibarekin lotura ekonomikoren bat duten pertsonak edo entitateak kooperatibaren izenean bermatzeko, bermeaz, fidantzaz edo beste edozein moduz; betiere, egintzak kooperatibaren helburuarekin lotura baldin badu, zuzenean edo zeharka.
- Lehiaketetan eta enkanteetan parte hartzeko; komeni den edozein kontratu-mota egiteko, eta kontratu horiek zuzentzeko, moldatzeko edo deuseztatzen.

k) Batzar Nagusiak adostutako interesen ordainketa erabakitzea.

l) Kooperatibari komeni zaizkion kredituak, maileguak edo sinadura-bermeak adosteko.

- m) Erakunde publiko eta pribatuen aurrean bermeak ematekoa, eta zuzenbidez onartutako edozein titulu, zor publiko edo zeinahi motako balore higigarri edo higiezin erosteko eta saltzekoa; harpidetzekoa, gordailutzekoa eta komenigarria ikusten duen moduan eraldatzekoa.
- n) Batzar Nagusiaren erabakia kontuan hartuta ekarpenak egitekoa eta obligazioak, parte-hartze tituluak edo partaidetza bereziak banatzeko beharrezkoa dena zehaztekoa.
- ñ) Bakoitzari komeni den eskumenak emanda, dagoen dirua zertan inbertitu zehaztekoa; aurrekontuak prestatzekoa; gastuak onartzekoa, eta kooperatibaren eskudunak eta ordezkariak izendatzekoa.
- o) Ohiko Batzar Nagusiak eta Ez Ohikoak antolatzekoa eta akordioak betearaztekoa.
- p) Pertsona konkretuei boterea eman eta kentzekoa; kooperatibaren negozioaren zenbait adar zuzentzekoa edo zenbait helburu lortzekoa.
- q) Hurrengo Batzar Nagusian berri emanez, Estatutuak interpretatzerakoan gerta daitezkeen zalantzak argitzekoa.
- r) Estatutu hauetan bereziki ezarritakoak.
- s) Kontseilu Errektoreko kideen uko egiteei, betetzeko ordezteei eta, oro har, organo horren barne-funtzionamenduari buruz erabakitzekoa.
- t) Batzar Nagusiari, kooperatibaren estatutuak aldatu eta barne-araudia onartu eta moldatzeko proposamena egitekoa.
- u) Ohiko Batzar Nagusiari urteko kontuak eta, hala badagokio, txosten-agiria eta kontuen ikuskatzaileena aurkeztekoa, eta soberakin garbiak nola banatu edo galerak, baleude, nola egotzi proposatzekoa.
- v) Kooperatibaren eskumenak baliatzeko komenigarriak izan daitezkeen ekimenak erabakitzekoa epaitegi eta auzitegi arrunt edo berezien aurrean, estatuaren bulego, agintaritza, korporazio eta organismoetan, hala nola erkidegoetako, probintzietako edo udalerrietako administrazioetan. Baita ere, helegite arrunt eta ezohikoak jartzekoa. Horrelakoetan, kooperatibaren eskumenak defenda ditzaten, ordezkariak, prokuradoreak edo abokatuak izendatzeko ahalmena du. Legelari horiei behar diren eskumenak emango zaizkie prozedurak eten daitezen eskatzeko edo dagokion guztia egiteko, baita zabaltasun osoz judizialki amore emateko ere; besteen artean, honako hauetan bat etorri edo uko egiteko eskumenak: adiskidetze, espediente, auzi, erreklamazio, helegite eta edozein klaseko auzibideetan eta prozedura dagoen egoeran egonda.
- w) Sute-arriskueta, garraiorako, lan-istripuetarako, lapurretetarako eta gainerakoetarako aseguruak kontratatuzkoa; horien primak ordaintzekoa, eta aseguratzailen kobrantza eskatzeko eta formulatutako erreklamazioetan amore ematekoa.
- x) Kasua ematen bada, Batzar Orokorrari proposatzea kooperatiba konkurtsoan deklaratzeko eta desegitea, eta bere eskumenekoak diren dagokion prozesuetako fase desberdinak betetzea.
- y) Kooperatibarentzako sinadura elektronikoa eskatzekoa, eta bere izenean eta ordezkapenetan erabiltzekoa, ahal den guztietan.

Hiru. Aurreko zerrenda azalpen hutsa da, eta ez ditu mugatzen Kontseilu Errektoreak dituen eskumenak, salbu eta legeak Batzar Nagusiarentzat edo beste Organo Sozialentzat berariaz gordetzen dituenak.

Lau. Ondoren aipatutako erabakietan Kontseilu Errektorearen berariazko onarpena behar da, eta ez da onartuko ordezkariak edo ahalmenak.

- a) Zuzendari-gerentearen izendapen eta kargu-kentzerako. Jardueraren edozein ahalmen gauzatzeko, Kontseilu Errektoreak, bere ordezkariak edo ahalmena emanez, egindako izendapen edo kargu-kentzeetarako, gainbegiratzea berari dagokionean.
- b) Ohiko Batzar Nagusiak eta Ez Ohikoak antolatzeko eta gai-zerrenda onartzeko.
- c) Bazkideak onartzeko eta baja emateko.

- d) Zigorrezko ahalmenaren ariketa egiteko.
- e) Jarduerarako egoitza nagusia edo, behintzat, zati handi bat ixteko edo lekuz aldatzeko.
- f) Kooperatibaren jardueraren zati handi bat mugatzeko, zabaltzeko edo aldatzeko.
- g) Kooperatibaren antolaketan aldaketa handiak egiteko.
- h) Beste erakunde batzuekin lotura iraunkorrak eta baliotsuak egiteko edo eteteko, izan kooperatibak edo ez.
- i) Ohiko Batzar Nagusiari urteko kontuak onartzeko proposamena egiteko, eta soberakin garbiak nola banatu edo, hala badagokio, galerak nola egotzi proposatzeko.
- j) Ohiko Batzar Nagusiari, dagokion eskumenetan, beharrezko diren akordioak har ditzan proposamena egiteko, eta horien gauzatze-ekimenaz arduratzeko.
- k) Estatutuak interpretatzerakoan gerta daitezkeen zalantzak argitzeko.
- l) Kontseilu Errektorearen onarpena beharko da bere ahalmenaren barruan legeak araututako, edo Estatutu Sozialetan edo Batzar Nagusiaren akordioetan jasotako beste edozein erabakietan.

37. Artikulua. Osaera, hautapena, uzteak eta bete gabeko postuak

Bat. Kontseilu Errektoreak lau kide izango ditu, eta horietako bat lehendakaria, beste bat lehendakariordea eta hirugarren bat idazkaria izango dira.

Zuzendari-gerenteak edo eskuordetzen duenak Kontseilu Errektorearen bileretan parte hartuko du, hitzarekin, baina bozik gabe.

Kontseilu Errektoreak emakumeen eta gizonen ordezkariak orekatua izan beharko du.

Bi. Kontseilu Errektoreko kideak Batzar Nagusiak hautatuko ditu, isilpeko boto bidez eta baliadun bozaren gehiengoz.

11/2019 Legearen 47.6 artikuluan ezarritakoaren arabera, Kontseilu Errektoreko bi kide bazkide-langile izango dira; bat bazkide-konsumitzaile, eta bat bazkide-laguntzailea. Ezarritako kopuruak osatzeko nahikoa bazkiderik ez balego honela jokatuko litzateke:

- Bazkide-langileei dagozkien kideak osatzeko ez baleude, leku horiek bazkide-erabiltzaileek osatuko lukete.

- Bazkide konsumitzaile-erabiltzaileei dagozkien kideak osatzeko ez baleude, leku horiek bazkide-kolaboratzaileek osatuko lukete.

- Bazkide-kolaboratzaileei dagokien kidea osatzeko ez balego, leku hori bazkide konsumitzaile-erabiltzaileek osatuko lukete.

Hiru. Kontseilu-kideak estatutu hauetan araututako bazkide-motetatik hautatuko dituzte isilpeko bozka partzialen bidez, kideak aukeratzeko egindako Batzar Nagusira agertu edo behar bezala ordezkarietako bazkideen artean, eta bazkide-mota desberdinak kontuan hartuz. Lau urterako aukeratu dira; ondoren, epe bereko zenbait aldirako berrautatuak izan daitezke. Behin epea bete ondoren, Kontseilu Errektoreko kideek behin-behinean jarraituko dute hurrengo Batzar Nagusia egin arte.

Lau. Kide horiek izendatzean hiru ordezeko hautatuko dira; horietako bat bazkide-langilea izango da, bat bazkide kontsumitzaile-erabiltzailea eta beste bat bazkide-laguntzailea. Hori ezin bada, leku horiek behin-betikoen eskema bera jarraituz ordeztuko dira.

Bost. Kontseiluko kide bakoitzak bozka bat izango du, eta berdinketa izanez gero, Lehendakaritzak kalitate-bozka izango du.

Sei. Agintaldiaren epea lau urtekoa izango da. Zatika berrituko da behin betiko berrautatu ahal izango direlarik Kontseilu Errektorearen kideen kopurua bakoitia balitz, lehenengo berritzean ukituen kopurua gora biribilduko da, gainerakoak hurrengo aldian berrituz eta honela hurrenez hurren.

Behin agintaldia bukatu ondoren, kontseilu-kideek agintean jarraituko dute Batzar Nagusiak aukeratutako kide berriek kargua onartu arte.

Zazpi. Kontseilu hautatu berriak, bere lehenengo bilkuran, lehendakaria, lehendakariordea eta idazkaria aukeratuko ditu, eta gainerakoak batzordekide izango dira.

Zortzi. Kontseilari batek uko eginez gero, arrazoitu egin beharko du, eta idatziz jakinarazi beharko dio artezkaritza-kontseiluari; kontseilu horrek zehaztu beharko du uko egiteko alegatutako arrazoia justifikatua den ala ez, eta idatziz jakinarazi beharko dio interesdunari. Uko egitearen kalifikazioaren aurka errekurtsioa jarri ahal izango da Batzar Orokorrean edo errekurtsio-batzordean, nahitaezko baja emateko ezarritako baldintza eta epe berberetan.

Uko-egitearen eragin-data uko egiten duen kontseilariak jakinarazpenean ezartzen duena izango da, eta ezin izango da, inola ere, jakinarazpenaren eguna baino lehenagokoa izan.

Kooperatibak uko egitea justifikatu gabekotzat jotzen badu, kalte-galeren ordaina eskatu ahal izango zaio Kontseilariari, hala badagokio.

Bederatzi. Kontseilu Errektoreko kideetako batek bere tokia behin-betiko uzten badu, berehala, lehen ordezekoak beteko du haren tokia, eta, estatutu hauen arabera, ordezkatuari gelditzen zitzaien denbora beteko du.

Hamar. Hutsunea, Lehendakari, lehendakari orde edo idazkari karguetan gertatuz gero, Kontseilu Errektoreak bere kideen artean hautatuko du ordezekoa, izendatutako ordezekoek beren karguak bete ondoren. Behin-behineko hutsunea izanez gero, lehendakariordeari dagokio lehendakaria ordeztea, eta hark esku utzitako funtzioak beteko ditu. Idazkariaren hutsuneak Kontseilu Errektoreko bilkurara agertutako kontseilu-kide gazteenak beteko ditu.

Hamaika. Kontseilari hautatuak izan ziren epean lanpostu hutsak gutxiengoan sortzen badira, ordezkorik egon gabe, Kontseilu Errektoreak bazkide guztien artean izendatu ahal izango du lanpostu hutsa beteko duen pertsona, lehenengo Batzar Orokorra bildu arte.

Bidezko edo arrazoizko Kontseilu-kideen behin-betiko uzteak Kontseilu Errektoreak onartu ahal izango ditu, salbu eta Batzar Nagusiaren aurrean egiten direnak. Kasu honetan, Batzar Nagusiak onartuko du, nahiz eta eguneko gai-zerrendan egon ez.

Hamabi. Kontseilu Errektoreko kide ezin izango dute izan:

a) Kooperatibako bazkide ez dena.

b) Konkurtsoaren ebazpenean datorren debekuak iraun bitarte, Konkurtso Legean oinarrিতා jarđutea debekatua dutenek, emantzipatu gabeko adingabeek, ezinduek, legez kargu publikoetan aritzea zigortua dutenek, gizarte-xedapen edo lege-hauste larriak eginak dituztelako kondenatuta daudenek eta duten karguagatik irabazi asmoko jarđuera ekonomikoetan parte har ez dezaketenek.

c) Kooperatibaren jarđuerekin zerikusia duten eginkizunak betez, Administrazioan aritzen diren funtzionario eta langileak.

d) Norberarentzat edo besterentzat kooperatibarekin leĥian jarđuten dutenek, edo haren interesen aurkakoak dituztenek.

e) Zaintza-Batzordeko kideek eta Zuzendari-gerenteak.

f) Lan-utzialdian dauden bazkide-langileek, lan-utzialdiak irauten duen bitartean.

Hamahiru. Kontseilu Errektoreko kide batek artĥkulu honetako ezintasun edo debekuren bat badu, berehala dimititu beharko du. Hala ere, Zaintza-Batzordeak aldi baterako eten ahal izango du bere kargua, hurrengo Batzar Orokorra egin arte, eta, halakorik ez badago, Kontseilu Errektoreak. Batzar Orokorrak, kautelazko etendura gertatu denean edo edozein bazkidek eskatuta, Kontseilu Errektoreko kidea kargutik kenduko du, d) idatz-zatian aurreikusitako kasuan izan ezik; kasu horretan, Batzar Orokorrak askatasunez erabakiko du kargutik kentzea edo jarraitzea.

Hamalau. Batzar Nagusiak Kontseilu Errektoreko kideak kargugabetu ditzake, nahiz eta eguneko gai-zerrendan egon ez. Hala ere, kasu honetan, batzarrera agertutako eta ordezkaturakoen aldeko bozen bi herenen gehiengo kualifikatua beharko da.

Hamabost. Kontseilu-kideren bat kargugabetuz gero, Batzar Nagusiko batzarrean kontseilu-kide berriak aukeratuko dira, nahiz eta eguneko gai-zerrendan egon ez.

Hamasei. Kontseilu Errektoreko kideen kargugabetzeak, arrazoia edozein dela ere, Kooperatiben Erregistroan agertzen den egunetik aurrera izango du eragina hirugarrenengan.

38. Artĥkulu. **Kontseilu Errektorearen funtzionamendua**

Bat. Lehendakariak bere ekimenez edo kontseilu-kideen heren baten eskaera arrazoituari jarraituz deituko du Kontseilu Errektorea, eta bere eskumenekoak diren gai guztiak tratatu eta erabaki ahal izango dira bileretan.

Bi. Lehendakariak kontseilu-kide bakoitzari deialdi idatzia bidaliz deituko ditu Kontseilu Errektorearen bilerak.

Hiru. Geografikoki urrun dauden kontseilariĥi Batzar Orokorrean parte hartzeko eta beraien borondatea adierazteko eta erabakiak bideokonferentzia-sistemen bidez edo antzeko beste sistema batzuen bidez hartzeko aukera eskainiko zaie. Sistema honen bidez irudiaren eta soinuaren bi noranzkoko eta aldi bereko komunikazioa eta ikusizko, entzumenezko eta ahozko elkarrekintza ahalbidetzeko aukera izango dute.

Kontseilari batek organo horren bileretan parte hartzen badu eta aurreko paragrafoan adierazitako moduan bere borondatea adierazten badu, idazkariak aktan berariaz jasoko ditu bazkidearen nortasuna eta horretarako erabilitako bidea, erabakiak balioz hartzeko eskatzen diren gainerako baldintzekin batera.

Lau. Kontseilu Errektorearen bilerak baliozkoak izango dira kontseilu-kide guztien erdia baino gehiago bildutakoan. Bertaratze pertsonala izango da, ordezkapenik gabekoa, eta akordioak bertaratutako guztien erdien baino bozka gehiagorekin hartuko dira. Kontseilu-kide bakoitzak bozka bat izango du, eta Lehendakariaren bozak erabakiko du berdinketak.

Bost. Erabaki hauek hartzeko, Kontseilu Errektoreak bertaratutakoen bi herenen aldeko botoa beharko du gutxienez:

- a) Jarduerarako egoitza nagusia, edo zati handi bat ixteko edo lekuz aldatzeko.
- b) Kooperatibaren jardueraren zati handi bat mugatzeko, zabaltzeko edo aldatzeko.
- c) Kooperatibaren antolaketan aldaketa handiak egiteko.
- d) Beste erakunde batzuekin lotura iraunkorrak eta baliotsuak egiteko edo eteteko, izan kooperatibak edo ez.

Sei. Kontseilu Errektorearen bileretan parte hartzen duten kontseilarietara, bideokonferentzia- sistemen bidez edo estatutuetakoko 38. artikuluko hirugarren paragrafoan aurreikusitako antzeko sistemen bidez, bitarteko elektronikoko egokiak emango zaizkie botoa emateko eskubidea erabili ahal izateko, eta botoa isilpean gordeko da Legean aurreikusitako kasuetan edo Estatutuak edo Barne Araubideko Erregelamenduak hala ezartzen dutenean.

Zazpi. Bilerako akta lehendakariak eta idazkariak sinatuko dute, eta labur-zehatz emango du akordio eta bozketen berri.

Zortzi. Kontseilu Errektoreak bere baitako kontseilu-kide-ordezkari bat izenda dezake; horretarako, kontseilu-kideen bi herenen aldeko bozka beharko da, eta notario aurrean gauzatu. Hala ere, ez du baliorik izango Kooperatiben Erregistroan inskribatu arte.

Batzar Nagusian azaldu beharreko kontu-emate eta balantzeen aurkezpenak, ezin izango dira, inola ere, ordeztu.

39. Artikulua. Kontseilu-kideen ardurak eta betebeharrak

Bat. Kontseilu Errektoreko kideek ez dute ordainsari zehazturik jasoko karguan aritzearen truke. Dena dela, izandako gastuak ordainduko zaizkie.

Bi. Administrazioaileak behar bezain zorrotz eta arduratsu arituko dira beren karguetan, eta-legeek estatutu sozialek enpresaburu ordenatu baten arduraz ezarritako betebeharrak beteko dituzte, karguaren izaera eta bakoitzari esleitutako funtzioak kontuan hartuta; kooperatiba behar bezala kudeatzeko eta ordezkatzeko beharrezko neurriak hartuko dituzte.

Hiru. Era berean, administrazioaileek leialtasunez beteko dute beren kargua, eta fede onez jardungo dute kooperatibaren interes onenean, beren ahalmenak eman zaizkien helburuez bestelako helburuetarako erabili gabe.

Lau. Administratzaileek isilpean gorde behar dituzte isilpeko datuak, eginkizunak utzi ondoren ere, legeak horretarako aukera ematen edo eskatzen duenean izan ezik.

Bost. Administratzaileek ez dute beren konturako edo besteren konturako jarduerarik egingo, baldin eta jarduera horiek kooperatibarekin lehia badakarte edo, beste edozein modutan, kooperatibaren interesekin gatazkarik sortzen badute.

Hala ere, kooperatibak aurreko paragrafoan jasotako debekuak salbuetsi ahal izango ditu kasu berezietan, Batzar Orokorrek aldez aurretik hala erabakitzen badu.

Gatazka-egoera horietan dagoen administratzaileak ezin izango du dagokion bozketan parte hartu. Nolanahi ere, administratzaile bakarra denean, horren berri eman beharko dio Kontseilu Errektoreari edo Batzar Nagusiari.

Aipatutako baimenik gabe egindako egintza, kontratu edo eragiketak baliogabetu ahal izango dira, eta salbu geratuko dira fede oneko bazkideak ez diren hirugarrenek eskuratutako eskubideak.

Sei. Enpresen diskrezionalitateari lotutako erabaki estrategikoen eta negozio-erabakien esparruan, enpresaburu ordenatu baten arreta-estandarra betetzat joko da administratzaileak fede onez jokatu duenean, erabaki beharreko gaian interes pertsonalik gabe, informazio nahikoarekin eta funtzionamendu egokiaren esparruan. Kooperatibarekin interes-gatazkarik duten edo izen dezaketen erabakiak ez dira enpresaren diskrezionalitatearen barruan sartuko.

Zazpi. Administratzaileek erantzukizuna izango dute, doloz edo erruz jardun badute, legearen edo estatutu sozialen aurkako egintzen ondorioz edo karguari datxezkion eginbeharrak bete gabe egindakoen ondorioz sortutako kalteen gain.

Zortzi. Solidarioki erantzungo dute egintza egin zuten edo lesio-erabakia hartu zuten organoko kide guztiek, salbu eta frogatzen badute, egintza edo erabaki hori hartzean edo betearaztean esku hartu ez arren, ez zekitelako haren berri, edo, hura jakinez gero, ahal zuten guztia egin zutela kaltea saihesteko, edo, gutxienez, berariaz aurka egin zutela.

Bederatzi. Egintza edo erabaki kaltegarria Batzar Orokorrek hartu, baimendu edo berretsi izanak ez du erantzukizunetik salbuetsiko.

Hamar. Administratzaileen erantzukizuna izatezko administratzaileena ere bada. Horretarako, egitezko administratzailetzat hartuko da administratzaile izendatu gabe karguari dagozkion eginkizunak betetzen dituen pertsona, bai eta, hala badagokio, sozietatearen administratzaileek emandako jarraibideak betetzen dituen ere.

Ez da izatezko administratzailetzat hartuko kooperatibari finantza-laguntza ematen dion hartzekoduna, zenbait baldintza edo errekerimendu ezarrita, kontrakorik frogatu ezean.

40. Artikulua. Erantzukizun ekintza

Bat. Nahiz eta eguneko gai-zerrendan agertu ez, Batzar Nagusian gehiengo arruntez hartutako erabakiz, Kooperatibak martxan jar dezake Kontseilu Errektoreko kideen kontrako erantzukizun-ekintza soziala. Edozein momentutan, Batzar Nagusiak amore eman edo uko egin diezaioke akzioa baliatzeari.

Gai-zerrendan ez badago, bertaratutako eta ordezkaturako botoen bi herenek eman beharko dute aldeko botoa, boto zuriak eta baliogabeak alde batera utzita.

Bi. Batzar Orokorren Erantzukizun ekintza sustatzeko erabakiak eraginpeko administratzaileen kargugabetze automatikoa dakar.

Hiru. Kooperatibak ez badu erantzukizun-ekintza abiatzen erabakia hartu eta hiru hilera, edozein bazkidek abia dezake.

Era berean, gutxienez botoen ehuneko hogeitaz ordezkatzeko bazkideek erantzukizun-akzioa hasi ahal izango dute gizarte-interesa defendatzeko, administratzaileek horretarako eskaturako Batzar Orokorretarako deialdia egiten ez dutenean.

Lau. Kaltea gertatu eta sei hilabeteko epea igaro ondoren, Batzarrak edo bazkideek akzioa egikaritu ez badute, edozein hartzekodun sozialek jarri ahal izango du erantzukizun-akzioa, kooperatibaren ondarea berrerraztearen ondorioetarako bakarrik.

Bost. Erantzukizun-ekintza baliorik gabe geldituko da hura sorrarazi duen egintza gertatu edo haren berri izatetik bi urtera.

Sei. Halere, aurreko ataletan ezarritakoari men eginda ere, horietatik kanpo gelditzen dira administratzaileen jardunaren ondorioz bazkideei legozkiekeen egintzak, zuzenean hauen interesen aurkakoak balira.

Zazpi. Leialtasun-betebeharra urratzeak, ondare sozialari eragindako kaltea ordaintzeko betebeharra ez ezik, kooperatibari bidegabeko aberastea itzultzekoa ere ekarriko du.

41.Artikulua. Erabakien aurka egitea

Bat. Kontseilu Errektorearen erabakien aurka egin daiteke legearen aurkakoak badira edo estatutuen aurkakoak, edo bazkideren edo hirugarren baten onuran kooperatibaren interesak kaltetzen badute.

Baliogabeak izango dira legearen aurkako erabakiak, eta aipaturako gainerakoak baliogabetuak izan daitezke.

Ezin izango da aurkaratu balio duen beste batez ordeztu den edo baliorik gabe utzi den akordioa.

Bi. Erabaki baliogabeen aurka jo dezakete:

- a) Edozein bazkidek, erabakia ezagutu eta 60 egunen barruan eta, betiere, erabakia hartu denetik urtebete igaro ez bada.
- b) Kontseilu Errektoreko kideek, erabakia hartu eta 60 egunen barruan.

Hiru. Baliogabetu daitezkeen erabakien aurka jo dezakete:

- a) Bazkideek, 2.a atalean ezarritako epean kooperatibaren bozen % 10 ordezkatzeko baldin badute gutxienez.
- b) Kontseilu Errektoreko kideek, 2.b atalean ezarritako epean.

Lau. Erabakiaren aurka egiteak aurreikusitako ondorioak sortuko ditu, eta Batzar Nagusiaren erabakien aurka egiteko, Estatutu Sozialen 35.5 artikuluan ezarritako araudiaren arabera izapidetuko da.

42. Artikulua. Gerentea

Bat. Zuzendari-gerentea edukitzea erabakiko balitz, horrek, Kontseilu Errektorearen eskuordetzeagatik, hartuko luke kooperatibari dagokion enpresa-eginkizun guztien goi-kargu betearazpena, eta Kontseilu Errektorearen gainbegiratzepean jardungo luke.

Bi Kudeaketarako askatasun osoa izango du. Eta bere erabakiak betearazleak izango dira kooperatibaren langileentzako.

Hiru. Kontseilu Errektoreak, agiri berean edo ez, hurrengo ahalordetzeak emango dizkio Zuzendari-gerenteari:

- a) Kooperatibaren izenean jarduten duela egiaztatzeke, ahalordetze orokorra emango zaio, eta ahalmenak ahalordetze-eskrituran ezarritakoak izango dira.
- b) Osagarri gisa, barru-esparrura begira, Zuzendari-gerenteari eman nahi zaizkion ahalmenak gauzatzeko, estatutuetan emandako ahalmenak jasotzen duen ahalordetze-eskritura berezia emango dio Kontseilu Errektoreak.

Lau. Zuzendari-gerenteak emandako ahalordetze-eskrituretan jasotzen diren ahalmenak izango ditu, eta haien artean, honako hauek jasoko dira gutxienez:

- a) Kooperatibaren egunerokotasunari dagozkienak.
- b) Kooperatibaren bilakaera antolatzea, zuzentzea eta kudeatzea.
- c) Kooperatibaren urteko gestio-planaren eta plan estrategikoaren garapenaren zuzendaritza eta haren proposamena egitea Kontseilu Errektoreari, eta egikaritzarako ekimenen gauzatzeta.
- d) Kooperatibarentzat bidezkoak izan daitezkeen jarduera berri, bat egite, zatikatze, berregituratze eta birmoldatzeen azterketak egitea, eta esparru horietan hartzen diren erabakiak gauzatzeta.
- e) Kooperatibaren langile, inbertsio, finantzario, teknologiko, marketineko eta abarren politikak proposatzea eta garatzea. Behin dagokien organoek akordioa hartu ondoren, erabaki eta egikaritzeko beharrezkoak diren neurriak hartzea.
- f) Kooperatibaren antolakuntza eta egitura garapenerako eta onarpenerako proposatzea. Behin dagokien organoek akordioa hartu ondoren, erabaki eta martxan jartzeko eta ezartzeko beharrezkoak diren neurriak hartzea. Kooperatibaren antolakuntza-egitura modu askean zuzentzea.
- g) Zuzendari-gerentearen mendean dauden zuzenezko langileen izendatze eta kargutik kentzeko proposamena egitea Kontseilu Errektoreari. Eta xede soziala betetzeko, beharrezkoak diren aginte-betearazleak izendatzea.
- h) Kokapen profesionala, ahalmenen esparrua eta mendeko zuzendaritza-kargua duten langileen eginbehar eta eskumenak proposatzea Kontseilu Errektoreari, eta gainerako aginte-langile edo langile-betearazleenak erabakitzea.
- i) Langileria kontratatzekoa, ezarritako politikaren barruan dagokien kontratuak sinatuz, eta bazkideak behin-betiko onartuak izan daitezen proposatzea Kontseilu Errektoreari.
- j) Estatutuetan araututako aginduak modu egokian ezartzeko, beharrezkoak diren lan-araudi funtzional eta antolamendukoak garatzea; baita Kontseilu Errektoreak hartutako akordioak ere. Halaber, duten garrantziagatik, Kontseilu Errektorearen onarpena behar duten akordioak organo horri proposatzea, beti ere, estatutuetan araututakoari men eginez.

k) Kontseilu Errektoretik eratorritako beste edozein agindu garatzea eta egikaritzea.

2. SAILA. ZAINZA-BATZORDEARI BURUZKOA

43. Artikulua. Osaera, agintaldia eta izendapena

Bat. Zaintza-Batzordean, gutxienez hiru kide titular eta ordezeko bat izango dira; agintaldiak ez du bat egingo Kontseilu Errektorearekin, eta lau urte iraungo ditu. Kideak berriz aukeratuak izan daitezke.

Bazkideak soilik izan daitezke Zaintza-Batzordeko kide.

Bi. Kide titularrak eta ordezekoak aukeratzeko eta kentzeko, isilpeko bozketak egingo dira Batzar Nagusian. Kontratu laborala duen 50 langile baino gehiago dituenean, Kooperatibak behin-betiko kontratua dutenen artean kide bat aukeratuko dute. Ordezkoek titularren lekua hartuko dute, bakarrik titularren hutsaldia behin-betikoa denean.

Hiru. Estatutu hauetan Zaintza-Batzordeko kideentzat erantzukizunen, baliaezintasunen, debekuen, ordainsarien eta inskripzioen arauen baldintzapean daude, eta legearen bitartez Kontseilu Errektoreko kideentzat.

44. Artikulua. Informazioaren eskubidea

Bat. Kontseilu Errektoreak, hiru hiletik behin, kooperatibaren jarduera eta bilakaeraren berri emango dio Zaintza-Batzordeari.

Bi. Bere eginbeharra betetzeko, Zaintza-Batzordeak komenigarriak diren ikuskapen guztiak egin ditzake; eginbehar hori batzordeko kide baten edo gehiagoren esku utz dezake, edo, haiek gai ez balira, adituen laguntza eska dezake.

Hiru. Batzordeko kide guztiek eskura izango dute jasotako edo ezagutaraziko informazio guztia, baina egingako ikerketetatik edo jasotako informazioetatik lortutakoa, estatutuek agintzen duten mugetan gorde beharko dute.

45. Artikulua. Eskumenak eta funtzionamendua

Bat. Zaintza-Batzordeak zenbaki honetan datozen eskumenak ditu, baina, inola ere, ez dezake kooperatibaren kudeaketan zuzenki esku hartu, edo haren ordezkari bezala jardun hirugarrenen aurrean. Hala ere, Kontseilu Errektorearen aurrean edo bere kideren baten aurrean, Kooperatibaren ordezkapena izango du.

Bi. Zaintza-Batzordeak eskumen hauek ditu:

- a) Urteko kontuak eta bestelako kontabilitate euskarriak ikuskatzekoa, eta soberakinak erabiltzeko edo galerak egozteko proposamenarekin arauzko txosten bat prestatzekoa. Txostena Batzar Nagusian agertu baino lehen egingo da, salbu eta kooperatiba ez badago

behartuta bere kontuen ikuskaritza bat egitera. Kasu horretan, ez litzateke nahitaezkoa izango; hala ere, Zaintza-Batzordeak hala erabakiko balu kalterik gabe eman lezake.

Bi kasuetan, Zaintza-Batzordeak administratzaileei jakinarazi beharko die kooperatibaren urteko kontuei eta soberakinak banatzeko edo galerak egozteko proposamenari buruzko txosten bat aurkezteko asmoa duela, bazkideek ohiko Batzar Orokorraren deialdia argitaratzen den unean bertan aztertu ahal izan dezaten.

b) Kooperatibaren liburuak aztertzea.

c) Kontseilu Errektore osoak dimisioa emanez gero Batzar Nagusia deitzekoa, edo beharrezkoa ikusten duenean, Kooperatibaren interesak zaintzekoa, baldin eta, Kontseilu Errektoreak beteko ez balitu Euskal Autonomia Erkidegoko Kooperatiben Legearen 35. artikuluko 2. eta 3. zenbakietan datozen arauak.

d) Ordezkaritza-agiriak egoki emanda daudela ikusi eta oniritzia ematekoa, eta, oro har, batzarretara agertzeko eskubidea kolokan dutenen gorabeherak eta zalantza kasuak ebaztekoa.

e) Legez aurreikusita dagoen kasuetan, Kooperatibaren erabakiak aurkaratzeko eskumena.

f) Batzar Nagusiak berak agindutako kontu edo auziei buruzko berriak ematekoa.

g) Batzar Nagusiak gainerako organoetarako kideak aukeratu eta izendatzeko prozesua zaintzekoa.

h) Euskadiko kooperatiben legeko 44. artikuluan jasotako ezgaitasun edo debekuren baten menpean dauden Kontseilu Errektoreko kideak kargurik gabe uztekoa, eta Batzar Nagusia egin bitartean, behar diren neurriak hartzekoa.

i) Euskal Autonomia Erkidegoko Kooperatiben Legeak espresuki agintzen dizkion gainerakoak egitekoa.

Hiru. Zaintza-Batzordeak bere kideen artean aukeratuko ditu lehendakaria eta idazkaria, isilpeko bozka bitartez, eta bere barru-funtzionamendua arautuko du Estatutuetan edo, hala badagokio, barne-erregelamenduan aurreikusitakora egokitu beharko da. Hala ere, Batzordeko edozein administratzailek edo kidek eska diezaioke lehendakariari deialdia egiteko, idatziz, eskaeraren zergatiak adierazita. Kontseilu Errektore edo Zaintza-Batzorde taldeek deitu ahalko dute Kontseilu Errektorearen edo Zaintza-Batzorde beraren bi herenek eskaera egin eta hilabeteren buruan ez bada deialdirik egin.

Lau. Likidazio-aldian, Zaintza-Batzordeak artikuluko honetan adierazitako eginkizunetatik aldi horretan bidezkoak direnak baino ez ditu beteko.

IV. KAPITULUA

ARAUBIDE EKONOMIKOARI BURUZKOA

46. Artikulua. Erantzukizuna

Bat. Kooperatibak bere gain hartuko ditu sozietate-zorrak, oraingo eta etorkizuneko ondare guztiarekin, hezkuntza eta sustapen kooperatiborako eta interes publikoko beste helburu batzuetarako ekarpenari dagokiona izan ezik; azken horrek bere helburuak betetzeko hartutako betebeharren erantzukizuna baino ez du izango.

Bi. Bazkideak ez dira kooperatibaren zorren erantzule; beraz, haien erantzukizuna kapital sozialera eginiko ekarpena mugatuko da.

Hiru. Ordaindu beharreko diru-ekarpenak zehaztu eta gero, kooperatiba uzten duen bazkideak ez du inolako erantzukizunik izango kooperatibaren zorren gainean.

Lau. Bazkideek, berariaz eta zehazki, kontratuak sinatu edo betebeharrak hartu badituzte kooperatiba-sozietatearekin, eta, beren izaeragatik, bazkide-izaera galduz desagertzen ez badira, beraien betebeharrak erantzungo dute, baja hartu ondoren ere.

47. Artikulua. Kapital Soziala

Bat. Euskadiko Kooperatiben 11/2019 Legearen 60.1 b) artikuluan ezarritakoaren arabera, Kooperatibaren kapital soziala bazkideen nahitaezko eta borondatezko ondare-ekarpenetatik hornitzen da.

Bi. Gutxieneko kapitala 3000 eurotan ezartzen da.

Hiru. Kapital sozialaren ekarpenak partaidetza-libreta edo liburuxka izendunen bitartez egiaztatuko dira.

Lau. Baliabide iraunkorren erakarpena errazteko, kooperatibak menderatuko ekarpen finantzario bitartez egindakoak erabili ahalko ditu, baita beste instrumentu finantzarioak ere, horien jabeak kooperatibaren bazkide izan edo ez, eta, beti ere, legearen agindupean.

Aurkako akordiorik ezean, ez galdagarri diren ekarpen hauek modu askean igor daitezkeen titulupean jasota egongo lirarteke.

Bost. Ekarpeneak dirutan egingo dira; hala ere, ondasunetan eta eskubideetan ere egin ahalko dira. Horrelakoetan, Kontseilu Errektoreak zehaztuko ditu horien balioak, aditu independente batek aurretik egindako txostena kontuan izanik.

Sei. Bazkide batek, bazkide-laguntzaile direnak izan ezik, ezin izango du izan kapital sozialaren herena baino ekarpen handiagorik. Hala ere, muga hau ez da ezarria izango kooperatibak 10 bazkide baino gehiago izan arte, 11/2019 Legearen 60.5 artikuluan aurreikusten den bezala.

Zazpi. Kapital sozialaren tratamendua eta, orokorki, ekonomia-araubidea dagokien barruko arau eta onarpenen bitartez garatuko dira, beti ere, legearen eta kooperatibak hartutako araupeko engaiamenduen barruan.

48. Artikulua. Nahitaezko ekarpenak

Bat. Bazkide izateko eman beharreko hasierako nahitaezko ekarpena bazkide motaren arabera izango da. Hori hala, kopuruak honako hauek izango dira:

- Bazkide-langile finkoak jardun osoan.....4.000 euro
- Bazkide-langile finkoak jardun erdian. 4.000 euro
- Bazkide-langile behin-behinekoak jardun osoan. 50 euro
- Bazkide-langile behin-behinekoak jardun erdian..... 25 euro
- Bazkide laguntzaileek. 500 euro
- Bazkide kontsumitzaile-erabiltzaileek. 500 euro

Gehienbat, udalerriak eta bestelako erakunde publiko zein pribatuak izango direnez bazkide kontsumitzaile-erabiltzaileak, udalerrien kasuan biztanleriaren arabera eta gainontzeko erakunde publiko zein pribatuetan langile kopuruaren arabera hasierako ekarpena gomendatzen da, betiere gomendio moduan eta nahitaezko ekarpenak izanda aurreko paragrafoan aipatzen direnak. Hori hala, hauek izango dira hasierako ekarpenerako gomendatzen diren kopuruak:

- 1.000 biztanle baino gutxiagoko udalerriak edo 5 langile arteko erakundeak: 1.000 €
- 1.000-5.000 biztanle arteko udalerriak edo 6-10 langile arteko erakundeak: 1.500 €
- 5.001-10.000 biztanle arteko udalerriak edo 11-20 langile arteko erakundeak: 2.000 €
- 10.001-20.000 biztanle arteko udalerriak edo 21-30 langile arteko erakundeak: 2.500 €
- 20.001-40.000 biztanle arteko udalerriak edo 31-50 langile arteko erakundeak: 3.000 €
- 40.001-70.000 biztanle arteko udalerriak edo 51-90 langile arteko erakundeak: 3.500 €
- 70.001-100.000 biztanle arteko udalerriak edo 91-150 langile arteko erakundeak: 4.000 €
- 100.001 baino biztanle gehiagoko udalerriak edo 151 langile baino gehiagoko erakundeak: 5.000 €

Ekarpen hori, % 25 gutxienez, izena emateko unean ordainduko da, gainerakoa, lau urteko epean gehienez.

Batzar Nagusiak urtero finkatuko ditu bazkide berrien hasierako nahitaezko ekarpena

Bi. Bazkide izaten jarraitzeko nahitaezko ekarpen minimoa izango da:

- Bazkide-langile finkoak jardun osoan.....500 euro
- Bazkide-langile finkoak jardun erdian. 250 euro
- Bazkide-langile behin-behinekoak jardun osoan.50 euro
- Bazkide-langile behin-behinekoak jardun erdian..... 25 euro
- Bazkide laguntzaileak.500 euro
- Bazkide kontsumitzaile-erabiltzaileak. 500 euro

Kapital sozialari egindako ekarpena hasierako nahitaezko ekarpen minimoaren azpitik geldituko balitz, eskatzen zaion unetik, urtebete izango luke falta zaiona betetzeko.

Hiru. Halaber, Batzar Nagusiak onar ditzake nahitaezko ekarpen berriak egin beharra, bazkide-mota bakoitzeko kopuruak erabakitzeke, baita ordainketa egiteko baldintzak eta epemugak ezartzeko ere. Ados ez dagoen bazkideak justifikatuz hartuko den baja eman dezake.

Nahitaezko ekarpen berriak aurretik egindako borondatezko ekarpenekin ordaindu ahalko dira, bazkideak hala nahi izanez gero.

49. Artikulua. Borondatezko ekarpenak

Bat. Batzar Nagusiak onar ditzake bazkideek kapital sozialera egiten dituzten borondatezko ekarpenak, gutxienezko baldintzak ezarriz kontzeptu hauetarako:

- Ordaintzeko epea
- Interes-tasa, diru legezko interesa gainditu gabe
- Eguneratzea

- Itzultzea
- Eskualdaketa

Nahitazko ekarpenak baino mesedegarriagoak izan daitezkeelarik.

Bi. Kontseilu Errektoreak bazkideen borondatezko ekarpenak onar ditzake, beti ere, 11/2019 Legeak 62.2 eta 60.5 artikuluetan ezarritako ordainsari eta kantitateari buruzko mugak betez.

50. Artikulua. Ekarpenen interesak eta eguneraketak

Bat. Batzar Nagusiak bazkideek kapital sozialera egindako ekarpenengatik ordainduko diren interesak finkatuko ditu. Interes hori ezin izango da izan diru legezko interesa baino handiagoa.

Bi. Galerak dauden urteetan eta erreserbekin horiek osorik edo zati bat ordaintzeko nahikorik ez badago erabiltzeko moduan, kapital sozialera egindako ekarpenek ez dute sortuko interesik.

Hiru. Zuzenbide komuneke sozietateetarako ezartzen diren araudi eta baldintzekin eguneratuko da Kooperatibaren balantzea.

Lau. Urte batean edo gehiagotan, balantzearen arautzetik ateratako gainbalioa erabiliko da: lehenengo eta behin dauden galerak konpentsatzeko, eta gainerakoa, balego, Batzar Nagusiaren erabakiz eta hark onartutako kopuruetan, kapitala eguneratzeko edo erreserbak –nahitaezkoak edo borondatezkoak– handitzeko.

51. Artikulua. Kapitalaren ordainsaria

Bat. Batzar Nagusiaren erabakiz, legeak ezarritako epeen barruan ordainduko da 11/2019 Legeak araututako ekarpen kooperatiboetara, hala badagokio, bozka duten alde sozialei ordaindu beharreko interes gordina, beti ere, indarrean dauden arau eta akordioak errespetatuz. Inoiz ez da diru legezko interesen gainetik ordainduko.

Bi. Ordainketa erabilgarri diren aldeko emaitza garbien menpe egongo da, metatutako galerak kenduta, edo aske erabiltzeko erreserben menpe.

52. Artikulua. Ekarpenen eskualdaketa

Bat. Ekarpenak eskualda daitezke bizien arteko egintzaz eta heriotzaren ondoriozko oinordetzaz.

Bi. Bizien arteko egintzetan bazkideen artean, hurrengo hiru hilabeteetan izateko hitza ematen dutenak barne, honako arau hauen arabera:

- Bazkide izateko hitza ematen duen bazkideari egiteko, bazkidetza onartzearen baldintzapean egongo da eskualdaketa.
- Eskualdaketa egin behar duen bazkidearen ekarpena ezin izango da gelditu indarrean dagoen hasierako nahitaezko ekarpenaren azpitik.
- Hartzaileak eskualdatzen den ekarpena erabili ahalko du bere hasierako nahitaezko ekarpena eta sarrerako kuotaren ordainketa betetzeko.
- Adostutako eskualdaketak Kontseilu Errektoreari jakinaraziko zaizkio bere onespenerako, kontrolerako eta beharrezkoa den erregistrarako.

Hiru. Heriotzaren ondoriozko oinordetzan, kausadunak bazkide balira eta hala eskatuko balute, eta ez balira, oinordekoaren eskariz bazkidetza onartua izan eta heriotzetik hiru hilabeteren buruan.

53. Artikulua. Ekarpinak itzultzea

Bat. Printzipio orokorra.

Kooperatibaren jarraipenerako, erabilgarritasuna arautzerakoan nagusituko den printzipio orokorra onartezinezko zenbatekoetan kapital-gabetzea da saihestu beharra ekarpen sozialetan baja ematean; baita bazkideen ekarpenen kapital eta funts berekien izaera bermatzea ere.

Bi. Bazkidetza-galtze guztietan, bazkideak edo behar bezala kreditatutako kausadunek eskubidea dute kooperatibari egindako nahitaezko eta borondatezko ekarpenen itzultzea eskatzeko, baja emandakoan zuten balioarekin. Balioa emateko, kooperatiba utzi deneko urtea ixteko orduan egin den balantzea erabiliko da.

Batzar Nagusiak erabaki dezake bazkideen kapital soziala beharrezko diren neurritan murriztea, baina bazkide-mota bakoitzak kooperatiban indarrean dauden nahitaezko gutxieneko ekarpenak mantendu beharko ditu. Kasu horietan, Batzar Nagusiaren akordioak zehaztuko du bazkide bakoitzari itzuli beharreko kopurua eta egingo den epea.

Halaber, Batzar Nagusiak kapital sozialari egindako ekarpenen itzultze partziala baimendu dezake kooperatibarekiko jarduera murrizten duten bazkideentzat, behin-betiko denean eta arrazoia edozein dela ere.

Hiru. 13. eta 14. artikuluan ezarritakoaren arabera, ekarpenei ez zaie ezarriko inolako kenketarik bidezko baja edo heriotzaren arrazoiz bada.

Gainerako kasuetan, Kontseilu Errektoreak erabakiko ditu kenketak:

- kanporatua izanez gero edo gutxieneko egonaldia bete baino lehen, justifikatugabe, norberaren borondatez utziz gero % 30 artekoa izan daiteke.
- justifikatu gabe –norberaren borondatez nahiz behartuta– utziz gero,

bazkidearen nahitaezko ekarpenaren likidazio zenbatekoaren gaineko % 20 artekoa ere izan daiteke.

Lau. Itzultze-baldintzak.

Kontseilu Errektoreak uko egin diezaioke ekarpenen itzultzerako edozein eskaerari, inolako baldintzarik gabe.

Kontseilu Errektoreak itzultzeko eskaera onartuz gero, baja hartu eta bost urte igaro baino lehen itzuli beharko du, edo urtebete baino lehen bazkidea hiltzen bada. Itzultzea nola egin Kontseilu Errektorearen esku gelditzen da, eta kontuan izan beharko du kooperatibaren egoera finantzarioa eta bajaren inguruabarra, salbu eta Kapital Sozialaren murriztapenari dagokionean, halakoetan, Batzar Nagusiarena baita eskumena.

Kontseilu Errektoreak onartutako itzulketak eskaeren antzintasuna kontuan hartuta egingo dira. Halaber, Kontseilu Errektorearen eskumena izango dira ekarpen sozialen itzultze-zehaztearen gainerako berezitasunak.

Bost. Ordaintzeke dauden kopuruen gain, bazkideak legezko diru-interesaren adinakoa jasoko du urtero, baina kopuru horien gain ez du izango gaurkotzeko eskubiderik.

54. Artikulua. Partaidetza bereziak

Bat. Partaidetza berezitzat hartzen dira: 11/2019 Legearen 67. artikuluan araututa datozen mendeko finantzaketak; artikulua horretan esaten da ezin izango dela egin diru-itzulketarik –jaulkitzen denetik edo kontratazio egunetik– bost urte igaro arte gutxienez, eta haren ordainketa kooperatibaren emaitzen arabera izango da.

Bi. Batzar Nagusiaren eskumena da partaidetza bereziak onartzea, akordioan finkatuz:

- a) Kontratazioaren edo jaulkipenaren zenbatekoa eta baldintzak; horrek ez du ekarriko, inola ere, Batzar Nagusiaren botoa emateko edo Kontseilu Errektorean parte hartzeko eskubiderik.
- b) Bazkideei eta soldatapeko langileei eskainitako kopurua, hirugarrenei eskaini baino lehen, ez da izango guztizkoaren % 50 baino txikiagoa.

55. Artikulua. Sarrera-kuotak

Bat. Batzar Nagusiak erabakiko du bazkide berrien sarrera-kuoten kopurua; kopuru hori hasierako nahitaezko ekarpenarekin batera ordaindu beharko da. Sarrera-kuota ezin izango da izan bazkide-mota bakoitzarentzat unean-unean ezarrita dagoen hasierako nahitaezko ekarpenaren % 25 baino handiagoa.

Bi. Sarrera-kuotak itzulezinak dira, eta ez dira kapital sozialean sartuko; Nahitaezko Erreserbaren Funtsera zuzenduko dira.

56. Artikulua. Aldizkako kuotak

Bat. Kuoten zenbatekoa eta maiztasuna zehaztuz, Batzar Nagusiak aldizkako kuotak ezarri ahalko ditu.

Bi. Sortu diren urte ekonomikoaren kontuen emaitzen sarreratzat hartuko dira.

57. Artikulua. Bestelako finantzabideak

Kooperatibak aukeratu ahalko du, aurretik behar diren adostasunak bilduta, 11/2019 Legearen 60.6 eta 68. artikuluetan datozen finantzabideetatik edozein.

58. Artikulua. Soberakin garbiak

Bat. Soberakin garbiak zehazteko merkataritza-sozietateetan aplikatzen diren arauak eta irizpideak aplikatuko dira.

Bi. Sail kengarritzat hartuko dira:

- Kooperatibaren kudeaketarako eman diren ondasunen balioa, merkatuko prezioak gainditu gabe.
- Bazkide-langileen lan-aurrerakinen zenbatekoa, kopuru globala kooperatibaren eremu eta Jarduera-sektorean lansari normala baino handiagoa ez denean.

- Kapital sozialari egindako ekarpenetatik jasotako interesak, 11/2019 Legearen 60. artikuluan araututakoak, eta prestazio edo kapital sozialean txertatuta ez dauden bestelako finantzabideetatik sortutakoak ere.
- Legez baimendutako amortizazioak.
- Kooperatibaren funtzionamendurako beharrezko gastuak, eta
- Indarrean dauden kontabilitate-arauak aitortu eta helburu bera duen edozein kengarri.

59. Artikulua. Soberakin erabilgarrien banaketa

Bat. Soberakin erabilgarriak soberakin garbiak izango dira; hau da, aurreko urteetako galerak berdindu eta zergak ordaindu eta gero gelditzen direnak.

Bi. Soberakin erabilgarriak Batzar Nagusiak banatuko ditu, arau hauen arabera:

a) % 30 gutxienez joango da nahitaezko Erreserbaren Funtsera, Promozio eta Heziketa Kooperatiborako Nahitaezko Kontribuziora eta interes publikoko bestelako helburuetara (hemendik aurrera, Nahitaezko Kontribuzioa); % 20 gutxienez Nahitaezko Erreserbaren Funtserako izango da, eta % 10 Nahitaezko Kontribuziorako.

Nahitaezko Erreserbaren Funtsean sartu beharreko gutxieneko ehunekoia erdira murriztu daiteke, Nahitaezko Erreserbaren Funtsa kapital sozialaren % 50era iritsi bitarte.

b) Gainerakoa, eta Batzar Nagusiak erabakitako proportziotan, honetarako izango da: borondatezko erreserba-funts banaezinetarako, Nahitaezko Erreserbaren Funtzari gehitzeko eta, hala badagokio, Nahitaezko Kontribuzioari gehitzeko. Kooperatiba irabazi asmorik gabekoa denez, bazkideek ezin izango dute berentzako soberakinik banatu.

60. Artikulua. Nahitaezko Funtsak

Bat. Nahitaezko Erreserbaren Funtsa kooperatiba sendotzeko, garatzeko eta bermatzeko izango da; ezin daiteke bazkideen artean banatu.

Funts honetan sartu beharrekoak izango dira aurreko artikuluan aurreikusitako diru-kopuruez gain, bazkideetza uzteagatik eratorritako ekarpenak eta bazkide berrien sarrera-kuotak.

Bi. Promozio eta Heziketa Kooperatiborako eta beste interes publiko batzuetarako Nahitaezko Kontribuzioa (aurrerantzean, Nahitaezko Kontribuzioa) balantzaren pasiboan kontabilizatuko da, beste sail batzuetatik bereizita, eta Batzar Nagusiak ezarritako oinarritzko lerroak aplikatuta 11/2019 Legearen 72. artikuluko lehen zenbakian datozen helburuetakoren bat betetzen duten jardueretarako izango da.

Aurreikusita dauden diru-kopuruez gain, bazkideen diru-zigorak Nahitaezko Kontribuzioan sartu beharrekoak izango dira.

Irabazi asmorik gabeko entitateei emango zaie Kooperatibak zehaztutako interes publikoko ekimenetara ez doan Nahitaezko Kontribuzioaren kopuru hori, soberakinak onartu eta ondoko urte ekonomikoan; egungo kooperatiben legerian, Nahitaezko Kontribuziorako ezarrita dauden interes publikoko helburuetarako erabilia izan dadin.

61. artikulua. Hezkuntzarako eta kooperatiba-sustapenerako eta interes publikoko beste helburu batzuetarako ekarpena

1. – Estatuetan edo Batzar Orokorrean ezarritako oinarriko ildoak aplikatuz, 60.2. artikuluan aipatutako soberakinen gainean ezarritako nahitazko ekarpena interes publikoko helburu hauetakoren batera bideratuko da:

- a) Bazkideen eta langileen prestakuntza eta heziketa kooperatibismoari, kooperatiba jardueri eta lanpostuarekin zerikusirik ez duten beste gai batzuei buruz.
- b) Kooperatiben arteko harremanak sustatzea, kooperatiben arteko sustapena, asistentzia, zuzendaritza komuna edo laguntza-ekimenak bezalako jardueretarako sortutako erakundeetan parte hartzeagatiko gastuak estaltzea barne.
- c) Hezkuntza-, kultura-, lanbide- eta laguntza-sustapena, bai eta kooperatibismoaren ezaugarriak kooperatibaren gizarte-ingurunean eta, oro har, gizartean zabaltzea ere.
- d) Euskararen erabilera sustatzea.
- e) Enpresa kooperatibo berriak sustatzea, euskal kooperatiba-mugimenduak sustatutako irabazi asmorik gabeko erakunde bati diruzko ekarpenak eginez.
- f) Bazkideak eta langileak prestatzea eta hezteak, kooperatiba-sozietateetan emakumeen eta gizonen berdintasunerantz aurrera egiteko politika eraginkorra sustatzeko.

2. Nahitazko kontribuzio horren xedea, aurreko paragrafoan adierazitako helburuetarako, diru-ekarpenen bidez bideratu ahal izango da, irabazi asmorik gabeko erakundeetara edo aurreko «1.b» paragrafoan aipatutako lankidetzak-erakunderen batera.

3. Kooperatibak ez du kontribuzio horri buruz erabakitzeke ahalmenik, adierazitako interes publikoko helburuetara bideratzeaz gain; beraz, enbargaezina da eta balantzearen pasiboan agertu behar du.

4. Ekarpene horretarako aurreikusitako helburuetara bideratuko dira kooperatibak bazkideei ezartzen dizkien zehapen ekonomikoak.

5. Kooperatibak berak adierazitako interes publikoko helburuetarako erabili ez den kontribuzioaren zenbatekoa irabazi asmorik gabeko erakundeek eman beharko zaie, ekarpen horretarako ezarritako interes publikoko helburuetarako, soberakina banatzea onartu eta hurrengo ekitaldi ekonomikoaren barruan.

62. Artikulua. Borondatezko funtsak

Batzar Nagusiak onartu ondoren, kooperatibak komeni bezain beste Borondatezko Erreserbaren Funts eratu ahal izango ditu; funts horiek banaezinak izango dira.

63. Artikulua. Galeren egozpena

Bat. Galerak konpentsatzeko irizpideek arau hauek bete beharko dituzte:

- a) Estatutu hauetan adierazten den bezala, Balantze-araupetzearen funtsaren aurka, hala badagokio.
- b) Oso-osorik Borondatezko Erreserbaren Funtsaren aurka, halakorik balego.
- c) Nahitazko Erreserbaren Funtsari egotzi ahal izango zaio, gehienez, azkeneko bost urteetan izandako aldeko soberakinetatik nahitazko funtsetara zuzendutako batez besteko ehuneko edo eratu zenetik, bost urte horiek baino lehenagokoa ez bada. Hala ere, Nahitazko Erreserba Funtsak kooperatibaren kapital sozialaren ehuneko berrogeita hamar gainditzen badu, ehuneko hori gainditzen duen zenbatekoa galerak konpentsatzeko ere erabili ahal izango da.

d) a, b eta c atalen arabera konpentsatu gabeko kopuruaren % 50 bazkideei egotziko zaie, urtean jasotako lan-aurrerakinen proportzioaren arabera, eta % 50 bazkide kontsumitzaile-erabiltzaileei, urtean kontsumitutakoaren arabera. Bazkide-kolaboratzaileei ez zaie egotziko galeren gaineko inolako kopururik.

Bi. Bazkide bakoitzari egotzitako galerak, bai zuzenean, bai kapital-murrizketaren bidez ordainduko dira, Batzar Nagusiak onartzen den ekitaldiaren barruan erabakitzen duenaren arabera, eta, hondarren bat geratzen bada, gehienez ere beste urtebeteko epean, zuzeneko ordainketaren bidez.

Hiru. Aurreko atalean adierazitakoaz gain, Batzar Nagusiak erabaki dezake urte bateko galerak edo galeren zati bat banan-banako esleipenik gabeko kontu berezi bati egozte, edo, hala badagokio, etorkizuneko emaitza positibo eta balantze-araupetzeekin amortizatzeko, 5 urteko epean gehienez ere.

Lau. Aurreko zenbakietan adierazitako epe guztiak igaro ondoren oraindik konpentsatu gabeko galerak geratzen badira, horiek Batzar Orokorrak erabakitako ekarpen berrien bidez ordainduko dira, edo kooperatiban bazkide izateari eusteko beharrezkoak diren ekarpen berrien bidez. Era berean, bazkideak baja hartu beharko du bere ekarpenak estatutuetan ezarritako gutxienekotik behera geratzen direnean eta ekarpen berri horiek egiten ez dituenean. Hori guztia kooperatibak konkurtsoa eskatu behar duen ala ez kontuan hartu gabe, konkurtso-legearen arabera.

V. KAPITULUA

SOZIEATEAREN AGIRIAK ETA KONTABILITATEA

634. Artikulua. Sozietatearen agiriak

Bat. Kooperatibak honako liburu hauek eguneratuta eta ordenean eramango ditu:

- a) Bazkideen izen-ematea.
- b) Kapital Sozialaren Ekarpenen Izen-emate Liburua.
- c) Batzar Nagusiaren eta Kontseilu Errektorearen aktei buruzkoa eta, hala badagokio, Zaintza-Batzordearena.
- d) Inbentario eta Balantzei buruzkoa.
- e) Kontabilitate-egunkari Liburua.
- f) Bestelako lege-xedapenek ezartzen dituztenak.

eta Euskadiko Kooperatiben Erregistroak gaitu eta egiaztatuak beharko dute.

Bi. Idazpenak eta oharpenak modu informatikoan edo egoki diren beste batzuen bitartez egingo dira derrigorrezko liburuak osatzeko.

Liburu horiek, euskarri elektronikoa edo paperean, Euskadiko Kooperatiben Erregistroak legeztatuko ditu, ekitaldia itxi eta sei hilabeteko epean.

1.c zenbakian adierazitako liburuak legeztatuta ez dauden bitartean, kasuan kasuko akten kopia ziurtatua bidali beharko da Euskadiko Kooperatiben Erregistrora, bi hilabeteko epean, horiek onartzen direnetik zenbatzen hasita.

65. Artikulua. Kontabilitatea

Bat. Kooperatibak bere jarduerarako egokia den kontabilitatea eramango du, Merkataritza Kodeak eta gainerako legezko xedapenek ezarritakoa betez eta, beti ere, kooperatiben ekonomia-araubidearen berezitasunak errespetatuz.

Bi. Ekitaldi-itxieran, administratzaileek kooperatibaren urteko kontuak formulatu beharko dituzte. Kontu horietan, balantzea, galera-irabazien kontua, memoria eta, hala badagokio, ondare garbiaren aldaketen egoera-orria eta diru-fluxuen egoera-orria sartuko dira, aplikatu beharreko finantza-informazioko arau-esparruarekin bat etorriz, eta gehienez ere hiru hilabeteko epean, sozietatearen ekitaldia ixten denetik zenbatzen hasita.

Administratzaileek dagokien kudeaketa-txostena sartuko dute urteko kontuekin batera, merkataritza-legeriarekin eta, hala badagokio, finantzaz besteko informazioaren egoera-orriarekin bat etorriz, kudeaketa-txostenean edo txosten bereizi batean sartuta.

66. Artikulua. Urteko kontuen gordailua

Kontseilu Errektoreak urteko kontuak Kooperatiben Erregistroaren gordailuan aurkeztuko ditu erregistroarako, Batzar Nagusiak onartu eta hilabeteren barruan, eta, hala badagokio, kudeaketa-txostena eta ikuskatzaileen kontuak ere aurkeztuko ditu; Kontseilu Errektoreko kide guztiek sinatuta. Administratzailearen batek ezin badu sinatu horren zergatia berariaz azaldu beharko da.

67. artikulua. Kontuen auditoretza

1. Kooperatibak kanpo-auditoretza egin beharko du, Kontu Auditoretzaren Legean eta hura garatzeko arauetan ezarritako baldintzetan, ekitaldiko urteko kontuetan eta kudeaketa-txostenean, honako kasu hauetakoren bat gertatzen denean:

a) Erregelamendu bidez ezartzen diren mugak gainditzen dituenean. Muga horiek, gutxienez, honako hauei buruzkoak izango dira: negozio-zifrari, balantzearen araberako aktiboaren zenbateko osoari eta lege horretatik edo berau garatzeko arauetatik ondorioztatzen den batez besteko enplegu kopuruari buruzkoak.

b) Batzar Orokorrerako deialdia eskatzeko adineko bazkideen gutxiengo batek eskatzen duenean, betiere eskatzaileek kostuei aurre egiten badiete, kontabilitatean funtsezko akatsak edo irregulartasunak antzemanaz gero horiek itzultzeari kalterik egin gabe.

c) Batzar Orokorrak edo artezkaritza-kontseiluak edo Zaintza-Batzordeak erabakitzen duenean.

2. Batzar Orokorrak izendatuko ditu kontu-auditoreak. Hala ere, Batzar Orokorrak izendapena ez badu behar bezala egin edo izendatutako pertsonak ezin badituzte beren eginkizunak bete, administratzaileek izendapen hori egin ahal izango dute, eta egiten den lehen Batzar Orokorrari emango diote horren berri.

VI. KAPITULUA **DESEGITEA ETA LIKIDAZIOA**

67. Artikulua. Disoluziorako zergatiak eta akordioak

Bat. Kooperatibaren desegiteko arrazoiak izango dira:

- a) Estatutuetan definitutako helburu soziala ezin bete izatea.
- b) Sozietate-organoen gelditzea, jarduerarik eza edo bidezko arrazoirik gabe kooperatibaren jardueraren etenaldia ematea. Kasu bietan bi urte jarraian izanez gero.
- c) Kooperatibaren osaketarako legalki beharrezkoa den bazkide-kopuruaren azpitik gutxitzea, hamabi hilabete baino gehiagoko epean emanez gero.
- d) Estatutu hauetan ezarritako gutxieneko kapital sozialaren zenbatekoaren azpitik kapitala gutxitzea, hurrengo hamabi hilabeteetan berrezartzen ez bada.
- e) Bateratze edo desegitea.
- f) Epaile-ebazpenean jasotako kooperatiba-desegite adierazpenak irekitzen duen Kooperatibaren likidazio-aitorpena, uztailearen 9ko 22/2003 Konkurtso Legean aurreikusita bezala konkurtso egoeran dagoenean.
- g) Horretarako, espresuki, deitutako Batzar Nagusiaren akordioa.
- h) Legeak ezarritako beste edozein arrazoi.

Bi. Desegitearen akordioa gehiengo arruntez hartuko da, salbu eta aurreko ataleko e) eta g) puntuetakoak, zeinetan 34.2 artikuluan ezarritako gehiengoak beharko baitira.

Hiru. Aurreko atalean aipatutako edozein arrazoi gertaturik, salbu eta Bat ataleko e) eta g) letretan aipatutakoa, Kontseilu Errektoreak Batzar Nagusira deitzeko betebeharra dauka, bi hilabeteko epean, eta edozein bazkidek eskubidea du Kontseilu Errektoreari deia egin dezan eskatzeko.

Kontseilu Errektoreak eta edozein interesdunek eska dezake kooperatibaren desegite judiziala, hauetako baldintzaren bat ematen bada:

- a) Batzar Nagusia ez dela deitua izan.
- b) Batzar Nagusia estatutuetan ezarritako epean ez dela bildu.
- c) Batzar Nagusia bildu eta desegite-akordioa ezin izan dela hartu.
- d) Batzar Nagusia bildu eta desegitearen aurkako akordioa hartu badu.

Lau. Desegitearen akordioa edo hori erabaki duen epaile-ebazpena Kooperatiben Erregistroan erregistratuko da; gainera, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian eta hedapen handia duen Gipuzkoako egunkari batean argitaratuko da.

68. Artikulua. Likidazioa

Kooperatibaren likidazioa bat etorriko da 11/2019 Legean 93. artikulutik 100. artikulura eta aplikagarri diren eta indarrean dauden gainerako xedapenetan ezarritakoarekin.

AZKEN XEDAPENA. ARBITRAJE KOOPERATIBOA.

LEHENENGOA. Arbitraje kooperatiboa

Kooperatibetako bazkideek, edozein motatakoak izanda ere, kooperatibaren eta kooperatibisten artean sor daitezkeen gatazkak konpontzeko, Euskadiko Kooperatiben abenduaren 20ko 11/2019 Legean, lege hori garatzeko arauetan, estatutu sozialetan edo kooperatibaren barne-arauetan ezarritako barne-bide kooperatiboa agortu beharko dute aldez aurretik.

BIGARRENA. Letradun aholkularia

Kooperatibak, Kontu Auditoretzaren Legean edo hura garatzeko arauetan ezarritakoaren arabera, bere urteko kontuak kanpoko auditoretzapean jarri behar baditu, legelari aholkulari bat izendatu beharko du, Kontseilu Errektorearen erabakiz.

Abokatu aholkulariak sinatuko ditu, zuzenbidearekin bat datozen irizpena emanez, Kooperatiben Erregistroan inskriba daitezkeen Batzar Nagusiak edo Kontseilu Errektoreak hartutako erabakiak.

Erabaki horien ziurtagiriek jasoko dute akta-liburuan jasota daudela erabaki horiek, letradun aholkulariak irizpena emanda.

Abokatu aholkulariak erantzukizun zibila izango du kooperatibaren, bazkideen eta hirugarrenen aurrean zabarkeria profesionalaren kasuan.

Eginkizun hori betetzea bateraezina izango da zuzendari-kudeatzaile edo Kontseilu Errektoreko kide izatearekin.

Kooperatibaren eta letradun aholkulariaren arteko harremana izan daiteke, zerbitzuak errentan hartzea profesional liberal gisa, lan-kontratu gisa, edo kooperatibako lan-bazkide gisa.

HIRUGARRENA. Delituak prebenitzeko eredia eta horren jarraipena egiteko mekanismoak

Bat. Kooperatibak Delituak Prebenitzeko Eredua izango du, eta horien jarraipena egiteko mekanismo bat ezarriko du.

Bi. Eredu horren edukia Kontseilu Errektoreak onartu eta Batzar Nagusiak berretsiko du, eta honako hauek jasoko ditu: arriskuen mapa; erabakiak hartzeko protokoloa; kudeaketa-eredua; salaketa-sistema; zehapen-araubidea; egiaztapen-sistema; delituen prebentziorako ereduaren aldizkako berrikuspina eta eguneratzea.

Hiru. Delituen prebentzio-eredua gainbegiratzeko, funtzionatzeko eta betetzeko ardura Kooperatibako organo bati eman behar zaio, ekimen- eta kontrol-botere autonomoak dituen organo bati, edo pertsona juridikoaren barne-kontrolen eraginkortasuna gainbegiratzeko eginkizuna legez esleituta duen organo bati. Kooperatibak besteren konturako 250 bazkide eta langile baino gehiago ez dituen bitartean, eginkizun hori Kontseilu Errektoreari esleitzen zaio, eta kopuru hori gainditzen duenean, zigor-arloko organo batek bere gain hartu beharko du eginkizun hori, nahitaez.

LAUGARRENA. Kooperatiba indarkeria sexistarik gabeko eremua izateko baliabide espezifikoak.

Bat. Kooperatibak indarkeriarik gabeko lan-espazioak eskainiko ditu, emakumeen eta gizonen berdintasun-printzipioak errespetatuz.

Bi. Kooperatibak sexu-jazarpenagatiko eta sexuan oinarritutako jazarpenagatiko protokolo bat izango du. Protokolo horretan jasoko dira sexu-jazarpenari eta sexuan oinarritutako jazarpenari buruz aurkeztutako erreklamazioak eta salaketak ebazteko jarduketak, eta berme guztiekin aplikatuko da.

Hiru. Kooperatibak beharrezko prestakuntza eta informazioa eskainiko die bere bazkide-langile eta besteren konturako langile guztiei, jakitun izan daitezen beharrezkoa dela aipaturako eskubideak erabat errespetatzea.